

Aldarrikapen feministak hiritartasun eraldatzaile baterako

Emakumeen eskubide
ekonomikoak

Gatazka egoeran dauden
emakumeak

Emakumeen eragin
politikoa
eta herri-partaidetza



Argitalpen hau Eusko Jaurlaritzako Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzaren eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren (AECID) finantza-laguntzari esker egin da. Argitalpenaren edukia HEGOAREN eta ACSUR-Las Segovias erakundearen erantzukizuna da, eta ez du zertan islatu Eusko Jaurlaritzaren eta AECIDen iritzia.

Argitaratzaileak:



UPV/EHU
Edificio Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre etorbidea, 81 • 48015 Bilbao
Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.es

UPV/EHU
Villa Soroa
Ategorrieta, 22 • 20013 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 01 74 64

UPV/EHU
Arabako Campus-eko Liburutegia, 138 kutzatila
Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. • Faxa: 945 01 42 87 • hegoagasteiz@gmail.com



Cedaceros 9, 3º izda • 28014 Madrid
Tel.: 91 429 16 61 • Fax: 91 429 15 93 • acsur@acsur.org
www.acsur.org

Proiektu hau kofinantzatu duten erakundeak:

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETKERDITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA
Giza eta Gizarte Zerbitzuak
Garaipen Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASUNTOS SOCIALES
Viteko Zerbitzuak eta Gizarte
Zuzendaritza



Azaroa 2010

Koordinazioa: Aitziber Eguskiza Samos, Amaia del Río Martínez,

Marta Casal Cacharrón eta Rocío Leó Fernández

Argazkiak: Gisela Volá, Llum Quiñonero, Alex Millá

Inprimaketa: Lankopi, S.A.

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Lege zenbakia: Bi-3247/2010

ISBN: 978-84-89916-44-9



Aitortu-Ez komertziala-Lan Eratorririk Gabe 2.5 Generikoa Espainia

Aitortu-Ez komertziala-Lan Eratorririk Gabe 2.5 Generikoa Espainia Creative Commons-en lizentziapean dago. Aske zara lan hau kopiatzeko, banatzeko eta publikoki hedatzeko, betiere kontuan hartuta lanaren kredituak aitortu behar ituzula, eta ezin duzula merkataritza xedetarako erabili. Ezin duzu lan hau bestelakotu, eraldatu edo lan eratorririk sortu hartatik abiatuta. Baimen osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/2.5/es/>

Aurkibidea

Aurkezpena	5
Aldarrikapenak: Emakumeen eskubide ekonomikoak	11
Aldarrikapenak: Gatazka egoeretan dauden emakumeak	15
Aldarrikapenak: Emakumeen eragin politikoa eta partaidetza herritarra	19
Emakumeen eskubide ekonomikoak	23
Gatazka egoeretan dauden emakumeak	31
Emakumeen eragin politikoa eta partaidetza herritarra	39
Esperientzia eraldatzaileak: Emakumeen eskubide ekonomikoak	47
Ekonomia Aldatzen ari diren Emakumeen Sare Latinoamerikarra (REMTE)	49
Emakume nekazariak eta landa-giroa	51
Erdialdeko Amerikako Emakumeak Bizitza Duinaren aldeko Erresistentzian	53
Etxe Barrukoak, Bizkaiko Etxeetako Emakume Langileen Elkarte (ATH/ELE)	55
Esperientzia eraldatzaileak: Gatazka egoeretan dauden emakumeak	57
Amismaxaj elkarte	59
Esperanza proiektua	63
Genero, Demokrazia eta Giza Eskubideei buruzko Behatokia	65
Iberoamerikako gaiei buruzko Ikerketa eta Espezializazio Elkarte (AIETI)	67

Esperientzia eraldatzaileak:	69
Emakumeen eragin politikoa eta partaidetza herritarra	
Emakumeen Mundu Martxa	71
Emakumeak Kongresuaren Aurrean Plataforma	73
Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko sare feminista	75
Ekologistak Martxan	77

“Aldarrikapen feministak hiritartasun eraldatzaile baterako”

Argitalpen hau *“Generoa Garapenerako Hezkuntzan: Iparra-Hegoa eztabaidagaiak, emakumeen agenda politikorako”* Garapenerako Hezkuntzaren proiektuaren barruan dago sartuta. Proiektu hori batera garatu dute HEGOAK eta ACSUR-Las Segovias elkarteak, eta Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzarako Zuzendaritzak eta Espainiako Garapenerako Nazioarteko Lankidetzeta Agentziak finantzatu dute.

HEGOAK, 1987an sortu zenetik, hainbat ekimen egin izan ditu giza garapenaren eta nazioarteko lankidetzaren esparruetan, eta emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko borrokan aritzeko asmoa agertu du, emakumeen eskubideen garrantziari lehentasuna emango dion giza garapenerako agendaren alde eginez, patriarkatuaren (dominazio-sistema gisa) gaineko kontzientzia kritikoa pizteko, patriarkatua eta desberdintasunak sorrazten dituzten gainerako sistemak elkarlotzeko, eta emakume zein erakunde feministei boterea emateko, euren etorkizunaren eta erabakien jabe izan daitezen.

ACSURrek, 1986an sortu zenetik, herritarren kontzientzia kritikoa garatzen lagundu du, partaidetza demokratikoko eta antolakuntza sozialeko prozesuei nazioarteko lankidetzaren eta elkartasunaren ikuspegitik helduz. Gizon eta emakumeen arteko parekotasuna oinarrizko balioa da erakunde honentzat, eta bere jardunak feminismoarekiko koherentea izan nahi du. Hori dela eta, erakunde honentzat, emakumeen eskubideak ez dira soilik lankidetzeta edo hezkuntza proiektu jakin batzuen gaia; aitzitik, eskubideak presente daude lan osoan zehar, barne-erlidaketa eta hausnarketa mailan ere bai.

Modu horretan, HEGOAn eta ACSURren beti pentsatu dugu generoaren eraikuntzak giza jarduera osoa zeharkatzen duela, eta, hori dela eta, perspektiba feminista integratzen saiatu gara une bakoitzean jorratu izan ditugun arazo globalen analisisian eta Garapenerako Hezkuntzatik planteatu ditugun proposamenetan. Premisa horiekin, argitalpen hau gaur egungo ordena sozial nagusiarekiko asmo kritikoarekin sortu da; izan ere, desberdintasun terminoei dagokienez, ordena horrek oso ondorio kaltegarriak ditu emakumeentzat. Era berean, eraldaketa soziala lortzeko asmoz, argitalpen honek gizarte justu eta libreagoak eraikitzea garamatza, emakumeen gaineko zapalkuntzarik eta esplotaziorik gabeko gizar-teetara, alegia. Uste dugunez teoria feminista eta generoko perspektiba direla, hain zuzen ere, Garapenerako Hezkuntzari edukirik emantzipatzaileenak ematen dizkietenak -lanerako ikuspuntu gisa-, saiatu gara esperientzia hezigarri honetan zenbait ekarpen feminista aitortu daitezten, emakumeen giza eskubideen defentsarako lanari dagokionez.

Proiektuak Garapenerako Hezkuntzaren eta lankidetzaren esparruko agenteen ezagutza indartu nahi izan du, hainbat proposamen erabiliz: trebakuntza eta eztabaida arloetakoak, lan tresnei buruzkoak eta eragin politikoari dagozkionak; eta hori, emakumeen giza eskubideen defentsarako hiru gai kritikoren inguruan: emakumeen eskubide ekonomikoak, gatazka egoeran dauden emakumeak, eta emakumeen eragin politikoa eta partaidetza herritarra.

Lan hau egiteko orduan, emakumeen aintzatespena azpimarratu da, eskubidedun subjektuak diren aldetik eta feminismoarekin politikoki konprometitutako Garapenerako Hezkuntzarekiko koherenteak diren ekintza-bideak esploratzen ari diren aldetik. Modu horretan, alde batetik, eztabaida piztu dugu eta hausnarketari jarraipena ematen dioten argitalpenak plazaratu ditugu, genero arloko justiziara eramango gaituzten ekintzen esparruko kritikan, orientazioan eta proposamenetan oinarritutako teoria eraikitzeko; izan ere, sarri askotan, hausnarketa espazio akademikoetarako uzten da. Beste alde batetik, elkarriketak eta aliantzak sortu ditugu GGKEekin, emakumeen elkarrekin eta elkarte feministekin -hegokoak eta iparrekoak-, sarritan isilduak izaten diren emakumeen ahotsak eta testigantzak bilduz. Modu horretan, euren begiradaren bitartez, duten egoera ulertu eta egiten dituzten ahaleginak eta lorpenak aitortu nahi ditugu, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna gaindituko duen garapenerantz joanez. Ondoren, lortu nahi izan diren emaitzak nabarmentzen ditugu:

- Emakumeen estatusa aitortzea, eragile ekonomiko gisa eta itun politiko eta herritarrak dituzten subjektu aktibo gisa; era berean, emakumeenganako indarkeria gizonen dominazio, botere eta kontrolaren adierazpen gisa identifikatzea, eta emakumeak eskubideen subjektu gisa hartuko dituen hiritartasuna birsortzea.
- Pentsamendu politiko eta ekonomiko feminista hedatzea, eta emakumeen bazterketa eta mendekotasuneko praktika sozialetan aldaketak ikusteko aukera eman duten eta genero arloko gaur egungo harremanak iraultzen laguntzen duten esperientzia onak zabaltzea, bake edo gerraosteko egoerak eraikitzekeo prozesuetan ere bai.
- Garapen arloko ekimenei modu kritikoa begiratzea, pribatua denaren dimentsio politikoa eta horrek bizitzarekin eta emakumeen eskubideekin daukan harremana aintzat har dadin.
- Garapenerako lankidetzan eragingo duten proposamenak eta estrategiak lantzea, agenda feministak berreskuratuz. Era berean, generoko desberdintasunen efektuak kontuan hartzea, giza eskubideak urratzen dituzten gatazketan.

Proiektu honetako jarduerarik garrantzitsuenetakoa “Feminismoak Garapenerako Agendan” Topaketa izan da. Bilbon egin zen, 2010eko maiatzaren 27 eta 28an. Ekitaldi horren helburuen artean agenda politiko bat egitea zegoen, hau da, gaur egungo zibilizazioaren krisi eta globalizazio egoeran, aldarrikapen feminista batzuk agertzea, eta, ondoren, sensibilizazio eta eragin politikoko jarduerak egitea zenbait esparrutan. Asmo horrekin, Topaketaren egitarauan taldekako lanerako espazio bat sortu genuen, emakumeen giza eskubideei buruz eztabaidan aritzeko eta aldarrikapen erako zenbait adostasunetara heltzeko. Orain aurkezten dizugun *“Aldarrikapen feministak hiritartasun eraldatzailerako”* argitalpena lantalde horien lanean eta ahaleginean oinarritzen da.

Topaketan 200 pertsonak baino gehiagok hartu zuten parte, gehienak emakumeak. Berrietako askok modu indibidualean egin zuten, baina beste batzuk GGKE (30etik gora), Espainiako Estatuko eta Latinoamerikako emakumeen elkarte eta mugimendu feminista, herri administrazioetako teknikari eta politikari, unibertsitateetako ikasle eta irakasle, garapenerako lankidetzak eta berdintasun arloetako elkarte eta enpresa, alderdi politiko eta abarren ordezkari gisa joan ziren. Datu horrek agerian uzten du Topaketako espazioetatik

sortutako proposamenak zeinen desberdinak eta ugariak diren. Edozelan ere, hausnarke-tak eta planteamenduak asko eta oparoak izan arren, lantaldeetan adostasunera heltzeko borondatez aritu izan dira.

Ekitaldi honetan, aldi bereko hiru tailer egin ziren, gai hauek jorratzeko: emakumeen es-kubide ekonomikoak, gatazka egoeran dauden emakumeak, eta emakumeen eragin poli-tikoa eta partaidetza herritarra, betiere, globalizazio neoliberalerako testuinguru honetan, non fundamentalismo erlijiosoak eta krisiak sortzen ari baitira, ez soilik maila ekonomiko eta finantzarioan, ezpada ekologian, zainketan, politikan eta balioetan. Nabarmendu be-har da hiru gaien artean erlazio handiak egon direla, emakumeen giza eskubideen lorpe-nean aurrera egiteko orduan eta azterketa feministak eskubideen osotasunaren inguruan ematen digun ezagutzari dagokionez, bai praktikan eta bai teorian. Eskubideen arteko lo-tura hori ekitaldiaren inaugurazioko lehenengo hitzaldian ere nabarmendu zen; izan ere, Marcela Lagardek adierazi zuen emakumeen giza eskubideak banaezinak zirela, indarke-riatik libre dagoen bizitzarako eskubidetik hasita. Gai hori etengabe aipatu zen hiru taile-rretan. Hala ere, giza eskubideen konplexutasuna eta giza eskubideen aldeko lan sutsua dela eta, eztabaida gai handien arabera banatu behar da, eta, ondorioz, gai bakoitzari es-pazio jakin bat eskaini genion.

Argitalpenak hiru atal ditu. Horietako bakoitzean gaika antolatzen dira aldarrikapenak eta eskaerak, eta bertan dago, era berean, hainbat testuingurutako emakumeen giza eskubi-deen adibide gisa jasotako eskaera eta esperientzia eraldatzaileak zertan oinarritzen diren azaltzen duen agiri argumentala ere. Hori guztia, tresna eta politiken garapenaren ardura-dunak ilustratzeko, inspiratzeko eta probokatzeko, emakumeen beharrezan eta interes estrategikoak esparru publiko zein pribatuan berenganatu ditzaten, eta emakume jaio iza-nagatik sufritzen dituzten desberdintasun historikoak eta egiturazko injustiziak ezabatuko direla bermatzeko.

Uste dugu argitalpen hau eragin politikorako materiala izan daitekeela, eta, beraren bitar-tez, agenteek eztabaidatu eta hausnarketa egin dezaketela, eta proposamen gehiago es-kaini ditzaketela. Hala, bada, argitalpen hau askatasun osoz erabiltzeko, jorratzeko, kon-partitzeko, banatzeko eta hobetzeko deia egiten dugu. Gainera, *copyleft* bidez editatu dugu, zeren eta, globalizazio neoliberalaren aurka daramagun borrokan, kulturaren eta

ezagutzaren kudeaketa merkantilistaren kontra egin nahi dugu, eta horren atzean dauden interes ilunak salatu nahi ditugu, bai eta jakiturien zirkulazio librea defendatzeko borrokan ari diren beste gizarte-mugimendu batzuekin aliantzak sortu ere, gizarte libreen garapenaren alde eginez. Izan ere, modu horretan, mugimendu feministen eta emakumeen informazio eta komunikazio estrategiak eta ezagutzak egia bihurtuko dira.

Gure nahia da ondoren aurkezten dugun edukia interesgarria izatea Garapenaren eta Giza Eskubideen esparruetan lan egiten duten pertsona, elkarte eta erakunde –gobernu-koak zein gobernuz kanpokoak– guztientzat, hausnarketa kritiko feminista sustatzea, eta eraldaketa politiko eta sozialaren alde egitea, generoaren esparruan bidezkoagoak eta orekatuagoak diren gizarteak eraiki ahal izateko. HEGOAK eta ACSURrek eragin politikoko ekintzak egiteko konpromisoa hartzen dute, zenbait kolektibori zuzenduta; esate baterako, komunikabide, unibertsitate, Eusko Legebiltzarreko eta Diputatuen Kongresuko batzorde, Erakunde eta Herri Administrazioei zuzenduta. Etorkizuneko erronka borondate politikoa sortzea da, modu horretan genero berdintasunean aurrera egiteko balioko duten konpromisoak bete daitezzen; eta hori, emakumeen eskubideak berriro kontzeptualizatuz eta gaur egungo eredu neoliberalaren eta sistema patriarkalaren gaineko begirada kritikoa mantenduz.

Aurkezpen honi amaiera emateko, eta maitasun handiz, eskerrak eman nahi dizkiegu egileei, dokumentu honetan jorratutako gai bakoitza lantzeko egin duten ahaleginagatik. Eskerrak, era berean, proiektu honen Aholku Batzordeari; izan ere, ekimen honen alde egin duen apustu eskuzabalik eta lankidetzarik gabe, proiektu hau ezin izango genuen aurrera eramanez. Gainera, eskerrak asko Topaketan parte hartu zuten pertsona eta erakunde guzti-guztiei, tailerretan hain lan handi eta bikaina egiteagatik. Euren emaitzak argitalpen honetan daude jasota. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Lankidetzarako Zuzendaritzari eta Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziari ere eskerrak eman nahi dizkiegu, material hau finantzatzeagatik eta proiektu honetan sartutako ekintzak egiteko eman diguten laguntzagatik.



Aldarrikapenak: Emakumeen eskubide ekonomikoak

1

Ohiko ekonomian erabiltzen diren terminoetako askoren berrikuspena eta birkontzeptualizazioa egiteko eskaera egiten dugu, eta eredu sozioekonomiko alternatiboak bilatzearen alde egiten dugu, bizitza duina bermatzeko asmoz. Berriro planteatu beharreko kontzeptuen artean, enpleguaren sinonimo legez erabilitako *lanaren* nozio mugatua nabarmendu behar dugu, bai eta *zaintetaren* ikuspegi mugatua ere, sarri askotan kontzepzio estratekonomikotik planteatzen dena.

2

Eskatzen dugu pertsonen eskubide indibidualak ez daitezela enpleguari lotuta egon. Era berean, herri administrazioei eskatzen diegu emakumeen eskubide ekonomikoen inguruan dituzten eta estaldura sozialen mantenimendurekin eta hazkundearekin lotuta dauden obligazioak bete egingo dituztela bermatzeko eta aitortzeko.

3

Bidezkoak, orekatuak eta iraunkorrak diren produkzio, zirkulazio, banaketa eta kontsumo erak lortzearen aldeko lanean aritzeko eskaera egiten dugu, betiere, balio feministetatik abiatuta.

4

Zainteten gaia sistema sozialaren erdian kokatzeko eskaera egiten dugu, sistema horretako funtsezko eta egiturazko elementu gisa.

5

Lan guztiak modu orekatuan aitortu, baloratu eta banatzeko eskaera egiten dugu, batez ere balioa galdu dutenak, hau da, gehienbat emakumeek egiten dituzten lanak.

- 6** Ordaindu gabeko lanetan, batez ere etxeko lanetan eta zainketa arlokoetan, erantzukidetasuna eskatzen dugu inplikaturako agenteen artean: gizon, enpresa eta gobernuen artean, alegia.
- 7** Ordaindutako lanetako eskubideak oso-osorik beteko direla eskatzen dugu, eta adierazten dugu guztiz beharrezkoa dela etxeko lan ordainduak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartu behar direla.
- 8** Lan esparruan emakumeen aurka izaten den indarkeria bertan behera uzteko asmoz, enpresek eta estatuek duten erantzukizuna beren gain hartu dezatela eskatzen dugu, enplegu feminizatuei arreta berezia jarritz.
- 9** Emakumeek ura, lurra, haziak eta abar eskuratzeko eta kontrolatzeko aukera izan dezatela eskatzen dugu, eta gai horien planifikazioari eta kudeaketari buruzko erabakiak hartzeko duten eskubidea bermatu dadila. Emakumeak elikagaien ekoizle gisa aintzat hartzeko eskaera egiten dugu, eta, era berean, aitortu dadila beraiek direla herriek elikadura, ekonomia, finantza eta energia arloetan duten burujabetasunaren zutabeetako bat.
- 10** Ekonomiari buruzko ikerketa eta ikasketa planek ikuspegi feminista gehitu dezatela eskatzen dugu, bai eta ezagutza sozialaren gainerako adarrekiko sinergiak sortu ditzatela ere.



Aldarrikapenak:
Gatazka egoeretan dauden emakumeak

1

Gerrei, gatazkei eta euren arrazoi eta ondorioei buruzko azterketa feminista eskatzen dugu, emakumeen ekintza politikorako boterea, baliabideak eta espazioak bermatuz.

2

Era berean, gatazka armatuetan emakumeek betetzen dituzten rolen aintzatespena eskatzen dugu, ez soilik biktima gisa eta bake-eraikitzaile gisa, ezpada borrokalari gisa ere, euren gizarteratzearen alde, besteak beste.

3

Segurtasunaren (nazioartekoa eta herritarren artekoa) kontzeptu hegemonikoa aldatu eta giza segurtasunaren ideiarantz joateko eskaera egiten dugu, eta, era berean, desmilitarizazioa, desarmaea, gastu militarren murrizketa eta mota guztietako armen kontrola ere eskatzen dugu.

4

Elkarrizketa politikoaren agendetan eta kode penalean feminizidioa eta zigorgabetasunaren tratamendua lehentasunez eta modu iraunkorrean sartzeko eskaera egiten dugu.

5

Emakumeen eta agenda feministen zeregin protagonista ikusarazteko eta aintzat hartzeko eskaera egiten dugu, bai eta emakumeek gatazken erregulazio baketsuko prozesuetan eta justizia sozial eta penalaren eraikuntzan izan dezaketen partaidetza efektiboa bermatzeko eskaera ere, biktimen leheneratze osoa ahalbidetuz.

6


Botere publikoei eskatzen diegu emakumeen giza eskubideen urraketetan duten erantzukizuna aitortu dezatela, berdin eskubide horiek estatuko agenteek urratu badituzte zein talde armatu edo partikularrek urratu badituzte ere, arreta berezia jarritz emakumeek gatazketan jasaten duten indarkeria sexualean. Egia, justizia eta konponketa eskatzen dugu, bai eta memoria historikoaren berreraikuntza ere, berreskuratze horretan ikuspegi feminista sartuz.

7

Emakume eta umeen salerosketaren aurkako politika eta arau juridikoak bete daitezzen eskatzen dugu, bai eta ekintza horiek perspektiba feministadun giza eskubideen ikuspuntutik berrikustea, garatzea eta aplikatzea ere, haurren eskubideak ere beteko direla bermatuz.

8

Existitzen diren baina ikusezin bihurtu diren gatazkek aintzat hartzeko eskaera egiten dugu; esate baterako, Kolonbia, Guatemala, Honduras eta beste herrialde askotako gatazkek. Era berean, Espainiako Estatuko enpresek sorrarazten dituzten joan-etorrietan gobernuek dituzten erantzukizunak aintzat hartzeko eskaera ere egiten dugu, horrek askoz ere modu biolentoagoan eragiten baitie emakumeei.



Aldarrikapenak: Emakumeen eragin politikoa eta partaidetza herritarra



1

Hiritartasunaren kontzeptuaren birplanteamendua eskatzen dugu, generoko ikuspegitik eta ikuspuntu feministatik. Eta hori, bazterketa-dinamikak eta oinarrizko eskubideen ukapenak legezkotzat jotzen dituen hiritartasunaren gaur egungo kontzepzioari aurre egiteko, horrek oso eragin txarra baitu emakumeengan. Hiritartasun oso eta unibertsala eskatzen dugu, emakumeen autonomiaren alde egiteko eta euren eskubideak ez daitezen egon elkarbizitza, egoera zibil, lan egoera, sexualitate edo jatorri mota jakin batzuen menpe.

2

Garapenaren kontzeptuaren eraldaketa eskatzen dugu; izan ere, gaur egun desarrollismo produktibistarekin dago identifikatuta, eta, ondorioz, pertsonen bizitza eta planetarena eutsiezinak dira, eta, gainera, horrek eragin berezia dauka emakumeen bizitzan, betidanik haren gainean jarri diren rolen ondorioz.

3

Emakumeenganako edozein motako indarkeriarik gabeko bizitzarako eskubidea oso-osorik bermatzeko eskaera egiten dugu, esparru pribatuan zein publikoan; izan ere, *sine qua non* baldintza da eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta sexualei zein ugalketa-eskubideei dagokienez.

4

Emakumeek euren gorputzaren gaineko erabakiak hartzeko eskubide osoa izateko eskaera egiten dugu, heterosexismoarekin eta heteronormatibotasunarekin kritikoa den ikuspuntutik. Emakumeon gorputzak kontrolatu nahi dituzten gobernuen politikak eta erlijio doktrinak salatzen ditugu, eta estatuaren laiktasuna galdatzen dugu.

5

Migrazioen kontrolerako politiken gaur egungo ikuspuntuaren eta atzerritartasunari buruzko xedapen eta araudien eraldaketa eskatzen dugu; izan ere, emakume migratzaileen oinarrizko giza eskubideak urratzen dituzte eta legezkotzat jotzen dituzte generoagatiko, egoera administratibo, zein jatorriagatiko bazterketak, zuzenean zein zeharka egindakoak.

6

Genero arrazoiengatik jazarrita dauden eta, edozein indarkeria motaren bitartez (bikote-esparruko indarkeria, komunitateko indarkeria, gatazka armatuetan izandako bortxaketak, genitalen mozketak, behartutako haurdunaldiak, behartutako esterilizazioak, orientazio sexualean oinarritutako indarkeria, edo identitate sexual eta generikoan oinarritutako indarkeria), oinarrizko eskubideak urratuta dituzten emakumeen babes eskubidearen berme osoa eskatzen dugu.

7

Eskatzen dugu emakumeen mugimenduak eta mugimendu feministak aintzat hartu daitezela, politika publikoei buruzko diseinurako eta erabakimenerako solaskide gisa, agenda eta denborak finkatuko dituen autonomiaren identifikaziotik abiatuta. Politika publikoek eta, batez ere, lankidetzarako politikek emakumeen jabekuntza prozesuak eta euren oinarrizko antolamenduak babestu behar dituzte, eta, gainera, eragin politikoaren trukerako eta elkarren arteko babeserako sareak eta plataformak sustatu behar dituzte.

8

Emakumeen mugimenduek eta mugimendu feministek politika publikoetan egi-ten dituzten eskaera eta azterketen zeharkakotasun efektiboa eskatzen dugu, garapenerako lankidetzarako politikak ere barne hartuz.



Emakumeen eskubide ekonomikoak

Yolanda Jubetok, Sandra Demak eta Mertxe Larrañagak eratutako agiria.

Munduko harreman sozial eta ekonomikoen ereduak ez digu uzten emakumeoi ditugun eskubideez berdintasun baldintzetan gozaten. Halaber, giza eskubideak, hein handi batean, ikuspegi androzentrikotik egin dira, eta ikuspegi horrek ez du bermatzen emakumeen beharrak beteko direnik, gizonezkoenak betetzen diren neurri berean.

Planeta osoan, oro har, lanaren sexukako banaketak planetan egiten den lan gehiena beren gain hartzera behartzen ditu emakumeak, dela iparraldean, dela hegoaldean. Hala ere, emakumeok munduko diru-sarreraren eta aberastasunaren zati txiki bat baino ez dugu jasozten, egiten dugun lanaren zati handi bat (etxeko eta zaintza-zereginak) merkatutik kanpoko delako, eta inolako ordainsaririk gabea.

Lan ordaindua ere ez dute baldintza beretan lortzen gizonezkoek eta emakumezkoek. Gizonezko baino emakume gutxiago sartzen da lan-merkatura, eta baldintza okerragoetan, gainera; hain zuzen ere, emakumeok betetzen ditugu aldi baterako lanpostu gehiago, eta guri egiten dizkigute lanaldi partzialeko kontratu gehiago, asko ekonomiaren sektore informalean, ordainsari okerragoak dituzten lanetan eta abar.

Horrez gain, iparraldeko zein hegoaldeko herrialdeetan gauzatu diren politika publikoak eta garapen-politikak egiteko, gizonetzkoen ereduak hartu dira abiapuntu. Hortaz, familia-buruak izaten ditu eskubide ekonomikoak eta sozialak, eta familia-burua gizonetzkoa izaten da, eskuarki; familia osatzen duten gainerako pertsonak eskubide eratorriak izaten dituzte. Egoera hori diskriminatzailea da, baina ez hori bakarrik: ez ditu islatzen munduan dauden askotariko bizikidetzak-moduak, eta, gainera, ez da aniztasun horretara egokitzen. Horrek guztiak pobrezia feminizazioa sustatzen du, eta genero-desberdintasun handiak sortzen ditu mundu osoan.

Gure herritartasun ekonomiko bermatzeko garatu behar ditugun eskubide sozial eta ekonomikoek lotura zuzena dute lanaren -lan ordainduaren eta ordaindu gabearren- guztizko zama banatzearekin, bai eta gure gaitasunak indartuko dituen hezkuntzarekin eta kalitatez bizitzeko aukera emango digun ingurumen egokiarekin ere. Beharrezkoa da pertsonen -gizon zein emakumeen- lan ordaindua bermatzea, horrek aukera emango baitie finantza-autonomia izateko; bai eta kalitatezko lana ematea ere, beren potentziala gara dezaten; eta gizarte segurantza publikoa eskaintzea, osasuna, aisialdia eta atsedena izango dutela bermatzeko.

Laburbilduz, eskubide horiek lortzeko, egitura soziala eraldatu beharra dago, eta egitura sozial hori arduratu behar da eskubide horiek benetakoak direla eta oro har planetako emakume eta gizon guztien beharretara egokitzen direla ziurtatzeaz. Eta, horrez gain, bidean aurki daitezkeen diskriminazio-oztopoak gainditzen lagundu behar du.

1. Etxeko eta zaintza-lanak emakume eta gizonen artean era bidezkoan banatzeko benetako eskubidea.

Historian emakumeek egin ditugun etxeko eta zaintza-lanak (gaur egun oraindik guk egiten ditugu gehien, planeta osoan) funtsezkoak dira ugalketa soziala eta pertsonen ongizatea bermatzeko. Dena den, gizarteak ez du oso balioesten lan hori, eta dohainik egiten da

etxe barruan. Lan horrek, gainera, ez die inolako gasturik sortzen ez enpresei ez estatuei. Enpresak eta estatuak, baina, munduan emakumeen doako lanak dakartzkien etekin ugariez baliatzen dira.

Merkatutik kanpo geratzen diren jarduera asko eta asko ekonomian eta gizartean ez baliosteak mugatu egiten ditu funtsean etxeko eta zaintza-lanetan jarduten dutenen eskubide sozioekonomikoak. Zeregin horiek ez dira lantzat jotzen gizartean, eta ez hori bakarrik: zeregin horiek ez dakarte norberarentzako eskubiderik. Hortaz, prozesu horrek pertsona askorengan du eragina, eta gehienak emakumeak dira. Pertsona horiek, lana sexuaren arabera banatuta izatearen ondorioz, ezin izan dituzte lortu norberaren eskubideak eta eskubide ekonomikoak; beren diru-sarrerak eta eskubide sozialak beste pertsona batekin duten harremanetik eratorriak dira. Beste pertsona hori gizonezkoa izaten da normalean, eta parte-hartze ordaindua izaten du lan-merkatuan.

Egoera hori ikusita, beharrezkoa da munduan dagoen lanaren zama osoa era bidezkoan banatzea, gizonak eta emakumeak baldintza beretan har ditzaten beren gain etxeko eta zaintza-ardurak, eta, beraz, emakumeak aukera izan dezaten lan-mundura sartzeko, bai eta berentzako denboraz, beren baliabideez, beren autonomiaz eta eskubideez gozatzeko ere, sexuagatiko diskriminaziorik gabe.

2. Lana izateko benetako eskubidea, lan-baldintza bidezko eta egokietan, eta lanaren ordainsari duinarekin.

Lana pertsonen eta gizartearen ongizatearen zerbitzura izan behar den jardueratzat jotzen dugu; eta ez merkatuaren eta klase boteretsuen interesen zerbitzura dagoen jardueratzat. Ikuspegi horretatik, lan duina izateko eskubidea planteatzen da pertsonak autonomia izango dutela eta gizartera ekarpena egingo dutela bermatzeko era gisa.

Hala ere, gaur egungo prozesu globalizatzailean larriagotzen ari da lan-munduko eskubideak egitez faltatzeak sortzen duen arazoa. Horrek, orobat, oinarrizko eskubideen falta

ere ekarri du zenbait tokitan, iparraldean zein hegoaldean; besteak beste, osasun-estaldura publikoan, kolektibo askorentzat. Halaber, lan-, ordainsari- eta erabaki ekonomikoak hartzeko gaitasunaren egitura polarizatzen ari da lehen mundu deritzoneko gizarteetan. Joera horiek berariaz eragiten digute emakumeoi; hain zuzen ere, geuk betetzen ditugu aldi baterako lanpostu gehien (guk dugu aldi baterako lanpostuen tasa handiena), geuk jarduten dugu lanaldi partzialeko lanpostu gehienetan eta geuk jasaten dugu askotariko diskriminazio horizontal eta bertikala lan-merkatuan. Hegoaldean, joera horiek okerragoak dira, emakume askok eta askok egiten dituzten lan informalak oso hedatuta baitaude, eta, gainera, baldintza ezegonkorretan, segurtasun faltarekin eta gizarte-estaldurarik gabe.

Beraz, emakumeen lan-baldintzak hobetzeko premia dago, bai eta gizon eta emakumeen lan-ordutegiak berriz planteatzeko beharra ere, bai gizonek eta bai emakumeok aukera izan dezagun lana -etxekoa zein etxetik kanpokoa- baldintza beretan geure gain hartzeko. Emakumeok ez dezagun egin, aurrerantzean ere, lan-zama handiagoa, batez ere etxean eta zaintza-zereginetan; izan ere, hala gertatzen da, gaur egun, munduko herrialde gehienetan. Horrek, jakina denez, ondorioak ditu gure ongizatean; lan-merkatuan mendeko egoeran jartzen gaitu eta denbora libre gutxiago eta askatasun txikiagoa izatea dakarkigu. Azken finean, emakumeen diskriminazio soziala indartzen du.

3. Emakumeek autonomia ekonomikoa izateko eta prestazio sozial eta ekonomikoak jasotzeko benetako eskubidea, prestazio horiek familia-unitatearen mende izan gabe.

Emakumeok egiten dugu munduko lanaren zati handiena, baina diskriminazio argi eta garbia jasaten dugu baliabide ekonomikoetarako sarbidea kontuan hartzen badugu. Gure soldata gizonena baino txikiagoa da planetako herrialde guztietan, eta ez dugu ordainsaririk jasotzen etxean eta ingurukoak zaintzen egiten dugun lanaren truke. Gainera, Lurreko ondasun gutxiagoren jabe gara emakumeok, gizonen aldean. Baliabideen banaketa desberdin horrek pobrezia feminizazioa deritzona dakar.

Pobreziaren feminizazioa desagerrarazteko modu argi bat munduan bizimodu duina izatea ahalbidetuko duten prestazio sozial eta ekonomikoei loturiko eskubide zuzenak ezartzea litzateke. Oinarrian eskubide eta baliabideetarako sarbide unibertsalak egon beharko luke; hau da, nahikoa izan beharko luke herrialde bateko egoiliar izateak gizarte segurantzaren estaldura izateko, pertsona batek lan-merkatuan eta familia-unitatean duen egoera edozein izanik ere. Emakumeen autonomia ekonomikoa norbanakoaren eskubidetzat hartuta bermatu behar da, alde batera utzita familia antolatzeke moduak edo pertsonen bizikidetzak ereduak. Orobat, aberastasuna berriz banatzea ere ezinbestekoa da, gizonek eta emakumeek aukera izan dezaten baliabideak baldintza beretan eskuratzeko, gizartearen ongizaterako egingo duten ekarpenaren arabera.

4. Eskubide ekonomikoak pertsona guztientzat, jatorri geografikoa edozein izanik ere.

Nazio Batuen Garapenerako Programak 2009. urteko Giza Garapenari buruzko Txostenean egindako analisisien arabera, “Datu-falta handia izan izanak migratzaileen profil orokor eta osoa aurkeztea eragotzi digun arren, erabilgarri dauden datuetatik zenbait eredu interregional egin ditugu. Emakumeak dira migratzaileen erdia gutxi gorabehera (%48), eta proportzio hori nahiko egonkor mantendu da azken bost hamarkadetan: 1960. urtean, migratzaileen %47 ziren emakumeak. Biztanleria migratzailearen genero-proportzioak antzekoak izan arren, horren atzean, alde handiak egon daitezke mugimendu eta aukera baliagarrien inguruabarretan. Era berean, gero eta azterlan gehiagok zalantza jartzen dituzte migrazioari buruzko erabakietan emakumeek mendeko rola dutela dioten ohiko ikuspegiak” (28. or.).

Emakume migratzaile askok ez du aukera handirik izaten harrera-tokietan. Hori dela eta, nahitaez aldatu behar dira atzerritartasunari buruzko araudiak; duten prestakuntza aintzatesi beharko liezaieke jatorri-herrialdean eta lan-baldintza duinak izan beharko lituzkete harrera-lurraldean.

5. Pertsonen ongizaterako politika publikoak ezarri eta kontrolatzeko lanean parte hartzeko eskubidea (osasunerako, hezkuntzarako, etxebizitza izateko eta gizartearen ikuspegitik iraunkor den denbora antolatze eskubideak, besteak beste).

Politika publikoak pertsonen ongizaterako eta aberastasuna berriz banatzeko mesedegarri izan daitezke. Hala ere, munduan nagusi den politika-eredua ez zen sortu genero-ekitatea bermatzeko ideiarekin. Aitzitik, gizon baino emakume gutxiagok jasotzen du hezkuntza; hain zuen ere, planetako analfabetoen bi heren inguru emakumeak dira. Halaber, pertsonen eskubide sozial garrantzitsuak dituzte lan-merkatuan duten mailaren arabera, eta, lehen esan dugun bezala, emakume gutxiago dago lan-munduari lotuta, eta baldintza eze-gonkorragoak dituzte, gizonenekin alderatuta. Hori dela eta, emakumeek diskriminazioa jasaten dute enplegutik eratorritako eskubide sozialak izateko orduan ere (erretiro-pentsioa, besteak beste).

Emakumeen zaurkortasun soziala areagotu egiten da krisi-egoeretan, egoerak ziklikoak zein sistemikoak izan. Hain zuzen ere, gizarte-politiketan zein osasun-politiketan egiten diren murrizketek ondorio larriak izan ditzakete biztanleengan, baina, batez ere, emakumeengan. Izan ere, alde batetik, geuk, emakumeok, dugu familia zaintzeko arduraren nagusia, eta ordaindu gabeko lanaren bitartez bete ohi da estatuak gizarte-laguntzan uzten duen hutsunea. Eta, bestalde, krisi-egoeretan emakumeak ahultasun handiagoko egoeretan izaten dira lan-merkatuan.

Genero-ikuspegitik, politikak eta kontuen ematea diseinatzen dituzten erakunde publikoek, baldin demokratikotzat jotzen badira, ahalbidetu beharko lukete emakumeek, banaka edo taldean, ordezkaritza izatea erakunde horietan, eta ziurtatu beharko lukete boterea bi-degabeki dutenek kontuan izango dituztela genero-desberdintasunak ongizate-politikak egiteko orduan, eta egingo dituzten ekintza publikoetan gizonen eta emakumeen arteko ekitate-printzipioaren alde egitearen kontu ematera behartuta izango direla. (UNRISD, 2006: 212)

6. Politika ekonomikoaren askotariko alderdietan genero-ekitatearen ikuspegia zenbateraino sartu den jakite aldera segimendua egiteko eskubidea.

Gaur egun, bereziki nabarmendu beharko litzateke ekonomia suspertzeko planen analisia, ekonomiako elkartze-hitzarmenak eta bestelako egitasmoak, baliabide publikoen erabilera eragin zuzena dutenak. Oso garrantzitsua da gobernuak 2007. urtearen amaieran krisia hasi zenetik hartu dituzten neurrien jarraipen kritikoa egitea: finantza-erakundeei erreskate masiboak egiteko hasierako planak, pentsioen erreforma egiteko azken proposamenak eta ekonomia suspertzeko neurri klasikoak, joera keynesiarrekoak, besteak beste.

Une honetan, badirudi irtenbide bakarra hazkunde ekonomikoa dela. Dena den, orain, beharbada “hazkundera hazkundera” kontzeptuari kritika egitea pentsatu beharko genuke; eta, kosta ahala kosta ekonomia suspertzearen alde egin ordez, agian jardura ekonomikoa zorrotzago kontrolatzearen alde egin beharko genuke, berriz ere espekulazio-bidezidorretatik joan ez dadin, adibidez. Gaur egungo krisia etorkizun iraunkor eta berdintasunezkoagoa eraikitzeke aukera izan liteke. Horretarako, komenigarria litzateke aztertzea ea zer dagoen Barne Produktu Gordinaren (BPGd) barruan eta zer geratzen den hortik kanpo, eta pentsatzea ea nola joka daitekeen BPGd-ean kontabilizatzen ez diren baina aintzat hartzea eta zaintzea komeni den ekoizpenekin. Berriz ere funtsean etxeetan egiten ditugun etxeko eta zaintza-lanak ditugu mintzagai. Horrez guztiaz gain, pentsatu beharko litzateke ea BPGd-ean sartzen diren ekoizpenetatik zein haztea merezi duen, eta zein ez haztea —edo txikitzea— komeniko litzatekeen, betiere, kontuan izanik helburua biztanle gehienengoz hobetzea eta egoera ahulenean dauden pertsonen gainean arreta berezia jartzea dela.

Orain arte, emakume errealizatuen eskubide ekonomikoaren aldeko jarduerak ez dira sistematikoak izan, eta ez dira politika makroekonomiko handiei erronka jotzeko gai ere. Alde horretatik, beharbada, merezi du une bat hartu eta hausnartzea ea zer motatako eredu ekonomikoa eta garapen-eredua nahi ditugun. Alegia, nahikoa al da emakumeak lehendik dagoen garapen-eredura sartzeko ala, aitzitik, garapenerako bestelako prozesuak bultzatu behar ditugu, oinarri berriak izango dituztenak? Eta, bidea horrek izan behar duela jotzen badugu, zein izan beharko lirateke oinarriak?



Gatazka egoeran dauden emakumeak

| Irantzu Mendia Azkuek
| eraturako agiria

Emakumeen eskubideak urratzen dituen eta emakumeei segurtasun eza eragiten dien iturri nagusia sistema patriarkala da. Sistema patriarkalak hierarkia bat ezartzen du gizartean, genero-arloko zatiketaren arabera egin. Hierarkia horrek maskulinitasunaren azpian jartzen du femininitasuna, eta mota desberdinetako indarkeriak hartzen ditu euskarri gisa (indarkeria zuzena, egiturazkoa eta sinbolikoa). Genero-arloko hierarkia hori gizarteko instituzio guztietan agertzen da, besteak beste, estatuan, merkatuan eta armadan. Instituzio horiek guztiek beren zereginak lortzeko baliatzen dituzte gizarte-, ekonomia- eta politika-arloan emakumei eta gizonei esleiturako zeregin desberdinak, eta euskarri gisa hartzen dituzte.

Gatazka armatua dagoenean, zatiketa hori are nabarmenagoa izaten da. Patriarkatuak modu esentzialistaz lotzen ditu emakumeak bakearekin eta gizonak indarkeriarekin. Era berean, maskulinitasun oldarkorraren mota bat sustatzen du, gizonak erasotzaileak izan daitezen bultzatzen baitu, eta emakumei, berriz, talde, nazio edo herrialdeko hurrengo belaunaldien jarraipenaren zaintzaileak eta bermatzaileak izan daitezen agintzen baitie.

Kasu gehienetan, gatazka armatuak genero-arloko zereginetan sorrarazten dituen aldaketen ondorioz, emakumeek gehiegizko lana hartu behar dute beren gain. Izan ere, zaintzai-leak izateaz gain, borroka egin behar dute bizirik irauteko eta familia-unitateari eusteko. Horrez gain, tradizioz gizonei egokitu zaizkien zeregin eta erantzukizun zehatz batzuen ardura hartu behar dute, eta, bestalde, jarduera politikoan, eta erkidegoari edo taldeari laguntza emateko zereginetan ere aritu behar dute.

Historikoki argi egiaztatu ahal izan denez, gatazka armatuak bereziki kaltegarriak izaten dira emakumeentzat. Izan ere, genero-arloko hierarkian betetzen duten postuaren ondorioz, emakumeek aukera gehiago dute mota guztietako indarkeria nozitzeko. Sexu-indarkeriak emakumeengan du eragina batez ere, neurritz gaineko proportzioan eduki ere, eta hori patriarkatuak gizartean finkatu duen eraikuntzaren ondorioa da. Tradizioz, sexu-indarkeria gerraren ondorio saihestezina dela uste izan da. Hala, bada, ez da aintzat hartu sexu-indarkeria zorrotz antolatutako estrategia sistematiko baten barruan dagoela, eta estrategia horren azken helburua arerioa apaltzea, umiliatzea eta deuseztatzea dela¹. Gerrako dinamiketan guztiz zabaldua dagoen eta behin eta berriz agertzen den indarkeria-mota bat da. Gerrako arma gisa erabiltzen da, eta, horren ondorioz, emakumeen eskubideak bi aldetatik urratzen dira: alde batetik, emakumeek armaden eta talde armatuen erasoak nozitzen dute, eta, beste alde batetik, erkidegoek emakumeak baztertzeko dituzte, errua leporatzen diete, eta, horren ondorioz, emakumeek gizarte-arloko estigmatizazio larria, lotsa eta beldurra izaten dute. Osagai etniko garrantzitsua duten gatazketan, emakumeak, maiz, indarkeriaren helburu estrategikoa izaten dira, eta hala da zeren emakumeak izaten baitira tradizioak, familiaren morala, erkidegoaren batasuna edota nortasun nazionala zaintzeaz eta iraunarazteaz arduratu behar dutenak².

¹ Sexu-indarkeria ez da gerrako krimenez jo XX. mendearen bukaerara arte. Jugoslavia zen lurraldeko (1993) eta Ruandako (1995) *ad hoc* auzitegiak abiaburutzat hartuta, sexu-indarkeria gizateriaren aurkako gerrako krimena zela jotzen hasi zen, eta tortura eta genozidioa bezalako beste delitu batzuekin lotzen hasi zen. Gero, 1998. urtean, Nazioarteko Auzitegi Penalaren Erromako Estatutuan jaso ziren lehen aldiz nazioartean, berariaz eta *per se*, gerrako krimen gisa, "bortxaketa eta sexu-esklabutza, behartutako prostituzioa, behartuta haurdun uztea, behartutako antzutea eta sexu-indarkeriaren bestelako moldeak".

² Guatemalako Argipen Historikorako Batzordeak (CEH) egindako txostenaren arabera, gatazka armatuan izan ziren sexu-bortxaketa gehienak emakume indigenen aurka egin zituzten, eta jokaera hori armadak matxinatuen kontra zuen estrategia genozidaren barruan txertatuta zegoen. Ikusi *Diálogos* aldizkaria, 2. zk., HEGOA eta ACSUR-Las Segovias, 2009. Hemen dago eskuragarri: <http://www.bantaba.ehu.es/obs/ocont/obs/gen/doc/dialogos2/>

Gerrak dituen inpaktu guztien artean, oroz gain nabarmendu behar dugu gerrak erkidegoak suntsitzen dituela, biztanleak nahitaez lekuz aldatzera behartzen dituela, batez ere emakumeak eta haurrak, hala neskak nola mutilak. Beste nonbaiten babestu edo lekuz aldatu behar izatearen ondorioz, emakumeek arrisku gehiago dute indarkeria jasateko, batez ere, sexu-arloko indarkeria nozitzeko. Hala ere, argi gailendu behar dugu emakumeek egoera horietan izaten duten gaitasuna: buruzagitza beren gain hartzeko eta aurre egiteko estrategiak garatzeko, erkidegoa antolatzeko eta –segurtasun eza eta oinarrizkoenak diren baliabideen gabezia dela-eta– muturreko baldintzetan bizitzari eusteko duten ahalmena. Alabaina, itzulera egiteko prozesuetan, normalean, inork ez du aintzat hartzen emakumeek egin duten ahalegin ikaragarria. Aitzitik, gizarteak presio handia egiten du, eta emakumeak behartzen ditu zereginik tradizionalenak atzera berriz har ditzaten, hau da, familiari eta etxeari erabat lotuta dauden zereginak bete, eta besterik egin ez dezaten.

Gatazka-egoeretan dauden emakumeei dagokienez, ezinbestez salatu behar dugu, alde batetik, emakumeok indarkeriaren xede izaten direla, eta, bestetik, nahitaez hartu behar dugula barne azterketan emakume horien esperientzien, aukeren eta zereginen aniztasuna. Hortaz, funtsezkoa da alde batera uztea biktimak gehiegi nabarmentzen dituzten diskurtsoak, eta nola edo hala azpimarratzea eta aztertzea emakumeek gerra-egoeretan betetzen dituzten jardueren aniztasuna³.

Gizonak bezala, emakumeak ekintzako subjektuak dira. Hala, bada, emakumeak gatazketan azaltzen dira, zuzenean, borrokalari gisa arituta gudarosteetan edo talde armatuetan, edota laguntza emateko egituretan sartuta, hau da, gerra egiteko ahalegina bultzatzeko laguntza logistikoa, eta gizarte-, politika- edota ekonomia-arloko laguntza emanez. Batzuetan, emakumeen parte-hartze hori emakumeek jabekuntza eta burujabetza lortzeko duten aukera bat dela ulertzen da; baina, hala ere, jarrera kritikoa izan behar dugu ikuspegi horren aurrean. Gerraren esparru patriarkalean, emakumeek indarkerian zuzenean parte hartzen baldin badute, horrek aldaketak sorraraz ditzake genero maskulinoari eta femeninoari lotutako eginkizunen baitan. Alabaina, horrek ez du berez esan nahi emakumeen bereizkeria eta desberdintasuna bultzatzen dituzten egiturak eta egitura horiei eusten dien

³ Irantzu Mendia Azkue, *Aportes sobre el activismo de las mujeres por la paz*. Lan-koadernoak, 48. zk., HEGOA, 2009. Hemen dago eskuragarri: http://www.hegoa.ehu.es/es/sensibilizacion/cuadernos_de_trabajo_para_sensibilizacion

ideologia nagusia inondik inora eraldatuko denik. Aitzitik, normalean, kontrakoa gertatzen da, sarritan, gerraren ondorioz, areago indartzen baitira desberdintasunean oinarritutako botere-egiturak. Hortaz, gerra bukatutakoan, maiz ikusiko dugu emakumeak gune publikoetatik baztertzen dituztela, behartu egiten dituztela tradizionalenak diren zereginak berriz har ditzaten, borrokalariak izan diren emakumeek ez dutela inolako onespenerik jasotzen, ez dutela desmobilizatzeko, desarmatzeko eta birgizarteratzeko prozesuetan izaten diren pizgarrien onura jasotzen, edota, azken batean, gizarteak gaitzetsi egiten dituela zeregin femeninoak bete ez dituztelako.

Emakumeei aitortu behar zaien beste arlo bat hauxe da: mota guztietako indarkeriei aurre egiteko eta bakea aurkitzeko egiten duten ahalegina. Puntu horri dagokionez, nabarmena da erakunde feministek ondo egiaztatuta duten ahalmena: gatazka armatuen azpian dauden dinamika patriarkalak zehazteko, eguneroko bizitzan barneratzen diren militarismoaren zantzuak aurkitzeko eta horrek emakumeengan duen eragina argitzeko, gerraren ondorio desberdinak generoaren arabera bereizteko, eta, orobat, mundu osoan barrena gatazka-egoeretan dauden emakumeekin elkartasunezko lokarriak josteko eta partekatutako azterketak egiteko duten ahalmena.

Nazioartean, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenak (*Emakumeak, bakea eta segurtasuna* izenekoak, 2000) lehen aldiz aitortu zuen berariaz gatazkak konpontzeko eta maila guztietan bakea eraikitzeko emakumeek egindako lan garrantzitsua. Hargatik, ebazpenaren arabera, emakumeek areago engaiatu behar zuten negoziazio-mahaietan eta, oro har, bakeari loturik zeuden Nazio Batuen programa eta sistemako maila guztietan. Ebazpen hori emakumeen mugimenduak eta mugimendu feministak urte luzez egindako borroka emaitza izan zen, eta, beraz, gertaera gogoangarri garrantzitsua da. Alabaina, ebazpena ezartzeko izan diren aurrerapenei dagokionez, alde batetik, urriak eta motelak izan dira, eta, bestetik, badirudi halako estrategia bat dutela oinarrian: Nazio Batuen (kasiko urdinen) edo estatuen (bereziki, NATO barruan dauden estatuen) indar armatueta emakume gehiago egon dadin lortzeko estrategia. Joera hori eta gerraren aurka dauden erakunde feminista askoren filosofia erabat kontrakoak dira. Erakunde feminista horien ustez, bakea lortzeko, gizartea ezinbestez desmilitarizatu behar da, eta, hortaz, gudarosteak suntsitu behar dira. Izan ere, horixe izango litzateke emakumeei eta, oro har, gizarteari segurtasuna ziurtatzeko berme nagusia. Horrenbestez, bakea gerraren absentzia dela eta

segurtasuna estatuari baizik ez dagokiola dioten tradiziozko azalpen nagusien aurrean, feminismoa oso lagungarria zaigu azalpen horiek berriz definitzeko, eta era honetako bakea sustatzeko: pertsonak ardatz gisa hartzen dituen segurtasuna eta indarkeriarik eza oinarritzat dituen bakea.

Gaur egun, nazioarteko araudian aurrerapenak izan diren arren, oraindik ere oso emakume gutxi egoten dira bakea negoziatzeko mahaietan, edota gerra ondoko berreraikuntzako prozesuetako erabakitze-guneetan. Hortaz, emakumeen interesak, eskaerak, beharriak eta salaketak ez daude behar bezala ordezkaturak bake-akordioetan, ez eta gerra ondoren berreraikitzen diren gizarteetan ere. Era berean, gerra ondoko berreraikuntzarako laguntza-politikoek, normalean, ez dituzte kontuan hartzen emakumeen beharriak eta interes estrategikoak, ez eta gatazkaren eragina nozitzeko emakumeek izan dituzten era ugariak ere. Horri loturik, argi nabarmendu behar dugu, gatazkan dauden aldeetan bizi diren emakume gehienek ustez, liskarrak amaitzen direnean ez dela benetako bakearik lortzen. Izan ere, sistema patriarkalak mendekotasun-egoeran egotera behartzen ditu emakumeak, eta egoera horrek emakumeen bazterkeria legezkatzen du eta eutsi egiten dio emakumeen aurkako indarkeriari. Horiek horrela, gatazka armatuan izan diren herrialdeetako emakumeen mugimendua eta mugimendu feminista dira, hain zuzen ere, indarkeria-mota hori salatzeaz eta hari aurrea hartzeaz arduratzen direnak⁴. Hala, bada, mugimendu horri sostengua eman behar zaio, eta ezinbestez aitortu behar zaio gerra ondoko berreraikuntzan funtsezko zeregina betetzen duela.

Feminismoak egin duen ekarpen nagusietako bat hau da: emakumeen aurkako indarkeriaren azterketa ezin dela mugatu une jakin eta adierazpen zehatz batzuetara; aitzitik, nahitaezkoa dela lokarriak finkatzea indarkeria zuzenaren, indarkeriaren adierazpenik agerikoenen, eta indarkeriaren egitura- eta kultura-osagaien artean. Hortaz, bada, gatazka

⁴ Genero-arloko indarkeriaren aurrean, badira zenbait tresna juridiko eta babes, estatuei erantzukizuna eskatu ahal izateko. Nazioartean, honakoak nabarmendu ditzakegu: Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeko Nazio Batuen Adierazpena eta Emakumeen aurkako bazterkeria-mota guztiak ezabatzeko Biltzarraren Hautazko Protokoloa. Eskualdeko sistemei dagokionez, hauek dira garrantzitsuenak: Emakumearen aurkako indarkeria prebenitzeko, zehatzeko eta ezabatzeko Amerika arteko Biltzarra edo Belem do Para Biltzarra. Bestalde, gatazka armatueta emakumeek nozitzen duten indarkeriari dagokionez, hauek azpimarratu behar ditugu: Nazio Batuen Segurtasuneko Kontseiluaren 1325 (2000) eta 1820 (2008) ebazpenak, eta, orobat, Europako Parlamentuaren 2005/2215 Ebazpena.

armatuetan eta gatazkak bukatu ondoren ere emakumeen aurka azaltzen den indarkeria-*ren continuum-a* ulertu behar da, eta aurre egin behar zaio horri. Horretarako, ezinbestez zehaztu behar da politika-, ekonomia- eta gizarte-arloko indarkeria, “bake” garaian inor ohartu gabe egoten dena -neurri handi batean genero-arloko hierarkia kulturalen zabal onartuta dagoelako-⁵.

Feminismoak nabarmendu du emakumeen aurkako indarkeriak ez duela arazo pribatua eta pertsonala izan behar da, eta indarkeria hori arlo publikoan kokatu behar dugula, arazo soziala eta politikoa delako. Era horretan, argi salatu dute gizonen beren gorputzaren jabetza kentzen dietela emakumei, hala gerretan nola “bake” egoeretan. Jabetza kentzeko prozesu horren adierazgarri, gertaera lazgarriak ditugu, hala nola, feminizidioa, behartutako prostituzioa edo emakumeak salerostea esplotazio sexualerako, edota emakumeen giza eskubideen urraketa horiek eta beste batzuk, maizenik, inolako zigorrik jaso gabe geratzea. Hain zuzen ere, feminizidioak “emakumeen aurkako indarkeria-mota desberdinak hartzen ditu barne. Indarkeria horiek guztiak ankerrak dira, emakumeekiko gorrotoaren adierazgarri, eta leku eta denbora zehatz batean izaten dira sistematikoki, inpunitate osoz, ez baitute inolako zigorrik jasotzen, estatuak erabat onartzen baititu. Indarkeria horien emaitza, batzuetan, emakumeen hilketa basatiak dira”⁶. Gertakari hori bereziki lotuta dago Ciudad Juárez hiriarekin (Mexiko) eta Erdialdeko Amerikako herrialde batzuekin (Guatemala, El Salvador), herrialde horietan hildako emakumeen kopurua aski handia delako. Hala ere, estatu espainiarrean eta mendebaldeko beste herrialde batzuetan hildako emakumeen kopurua ere handia da, baina zaila egiten zaigu egoera horren azterketan kontzeptu hau kontuan hartzea. Izan ere, emakumeen hilketa misogino guztiak, gizonen egingarritasunak, feminizidiotzat har ditzakegu⁷.

⁵ Irantzu Mendia Azkue, *Aportes sobre el activismo de las mujeres por la paz*. Lan-koadernoak, 48. zk., HEGOA, 2009. Hemen dago eskuragarri: http://www.hegoa.ehu.es/es/sensibilizacion/cuadernos_de_trabajo_para_sensibilizacion

⁶ Fabiola García Galán, “El rostro de las mujeres en el postconflicto. El caso de Guatemala”, *Mujeres en situaciones de conflicto: reflexiones en clave feminista* mintegia, HEGOA eta ACSUR-Las Segovias, 2008. Hemen dago eskuragarri: <http://www.bantaba.ehu.es/obs/ocont/obs/gen/doc/mujguatpostc/>

⁷ Ikusi “Sin mujeres no es Democracia” kanpainaren hirugarren aldiko dokumentua, ACSUR-Las Segovias, Erdialdeko Amerikako Generoari buruzko Biltzarra. Hemen dago eskuragarri: <http://www.acsur.org>

Emakumeek bakearen alde egin dituzten jardueren artean, besteak beste, argi nabarmendu behar dugu giza eskubideen alde, justizia bilatuz, eta memoria historikoa berreskuratu nahian banaka eta taldeka egin duten lana. Lan horren oinarrian, zigorgabetasunaren aurkako borroka dago, zigorgabetasunaren ondorioz giza eskubideak behin eta berriz urratzen direlako, eta biktimak eta haien senideak babesgabetasun osoan daudelako. Borroka horretan, estatuari egin behar zaio aurre, sarritan, gatazketan izaten diren giza eskubideen urraketa gehienak estatuaren erantzukizuna baitira. Estatuak urratze horien erantzukizuna hartu behar du bere gain, neurri egokiak finkatu behar ditu arazoa konpontzeko, eta zigorgabetasunari aurre egin behar dio eskura dituen legezko baliabide guztiak erabiliz.

Prozesu horretan, genero-ikuspegia aintzat hartzeko, gerra garaian emakumeen aurka izan den indarkeria argitara atera eta salatu behar da, justizia eskatu behar da emakume horientzat, eta egindako kalteak osatzeko politikak exijitu behar dira⁸; eta kalteak osatzeko prozesu hori ez da banaka egin behar soilik: ez, baliagarria izan behar du emakumeen eta nesken bizitzan eragin txarra duten egiturazko desberdintasunak eraldatzeko. Emakumeentzat, zigorgabetasunarekin haustea zera da: hala gerran nola gerra ondoren aurrean duten indarkeriaren *continuum*-a haustea. Hala ere, berreraikuntza-prozesuetarako bideratzen diren nazioarteko laguntza-programek bereziki nabarmentzen dituzten alderdi politiko-instituzionalek lotura estuagoa dute “governagarritasunarekin” eta “demokratizazioarekin”, eta bigarren tokian uzten dute biztanleen –eta bereziki emakumeen– ekonomia- eta gizarte-eskubideak sustatzeko eta osatzeko lana.

Emakumeek bakea eraikitzeko egin duten lanaren barruan, memoria historikoa berreskuratzeko bete duten zeregina nabarmendu behar da, egia argitzera eta biktimak duin bihurtzera zuzendutako eginkizuna. Zeregin neketsua da hori, historia ofiziala aldatzeko eta nahasteko izan diren saio guztiak desegin behar baitira, barneratutako beldurrak gainditu, eta urte luzetan nahitaez gorde beharreko isiltasuna hautsi behar baita. Horren adibide argia dugu Espainiako kasua. Espainian, frankismoak bertsio ofizial bat ezarri zuen gerra zibilari (1936-1939) eta diktadurako ondoko berrogei urteei buruz, eta, era horretan,

⁸ Emakumeen erakundeek eta erakunde feministek gero eta ekintza politiko gehiago egiten dituzte ildo horretan. Esate baterako, adibide esanguratsua da Guatemalako gatazka armatuan emakumeen aurka izan ziren sexu-bortxaketen kontrako kontzientzia auzitegia, 2010eko martxoan egindakoa.

memoria kolektiboaren gogotik ezkutatu eta ezabatu nahi izan zituen biztanleen aurka egindako giza eskubideen urratze larriak. Emakumeei dagokienez, ia ez dago daturik, non hil zituzten, non desagertu ziren, non atxilotu edo bortxatu zituzten jakiteko, eta hori ez da ustekabekoa⁹. Hargatik, feminismoaren ardura da memoria emakumeen ikuspegitik berreskuratzea, era horretan, emakumeak ikusgai jartzeko, haien oinazea eta ekarpenak aitortzeko, justizia bilatzeko eta egindako kaltea ahal den neurrian konpontzeko.

⁹ Ikusi Ander León, "Las "débiles mentales" del franquismo", *Diálogos* aldizkaria, 2. zk., HEGOA eta ACSUR-Las Segovias, 2009. Hemen dago eskuragarri: <http://www.bantaba.ehu.es/obs/ocont/obs/gen/doc/dialogos2/>



Emakumeen eragin politikoa eta herri-partaidetza

Begoña Zabalak, Silvia Carrizok, Justa Monterok eta Elisabet Padialek eratutako agiria

XXI. mendearen hasieran, argi eta garbi eta frustrazioz beteta esan dezakegu emakumeen partaidetza politikoa, hau da, toki-instituzioetan edo parlamentuetan duten agerpenaren arabera desberdintasunak azaldu arren, sistema demokratikoko lerro instituzionaletatik doan partaidetza politikoa, urria dela oraindik. Izan ere, ez dator bat emakumeek beste maila batzuetan daukaten partaidetza aktiboarekin, ezta erakunde askoren ustez eduki beharko luketen agerpen handiagoaren eskariarekin ere. Batez ere, ez da emakumeen errealitate desberdinen eta euren interes zehatzagoen adierazgarri. Ordezkaritza eta partaidetza horietan ez da islatzen munduko leku guztietako mugimendu feminista eta emakume-mugimendu borrokariak egindako ekarpen aberatsa bezain ugaria. Gure agenda politikoak funtsezko bataila garrantzitsua garatu behar du arlo instituzionalean eta ordezkaritza zein partaidetza politikoaren esparruan, mugimendu feminista jatorrizkoenaren, hau da, mugimendu autonomoaren eskariak eremu horietara iritsi daitezen. Horrela, bada, eskari horiek berezko agerpena izango dutenez, politika publikoek eskari horiek hartuko dituzte kontuan, eta, horren ondorioz, desberdintasunei zein bereizkeriei aurre egingo diete,

eta emakumeen bizi-baldintzak aldatuko dituzte benetan. Gaur egun, agerikoa da emakumeek aipatutako esparru instituzional horietan duten agerpen urriaren barruan feminismo instituzional edo ofizialaren hiperordezkaritza gertatzen dela eta, termino politikoetan, feminismo liberala baino ez da. Hori guztiori parekotasunaren aldeko -argazkiko?- borroken emaitza da, hain zuzen ere.

Nolanahi ere, partaidetza politiko guztia ez da mundu instituzional estu bezain zehaztura mugatzen. Ondo baino hobeto balioesten dugu milioika emakumek mundu zabaleko eragile guztietako mugimenduetan duten partaidetza handia. Hegoaldetik iparraldera, emakumeen mobilizazio eta partaidetza berritzaile bezain porrokatuak nagusitasun patriarkalaren sistema jarri du kolokan, kritikaren ikuspegi askotatik. Era berean, ausardia eta adorea handiz aurre egiten dio sistema neoliberalari, pertsonak merkantziatzat hartzen dituelako eta mozkin izugarriak lortzen dituelako milioika gizakiren eta, batez ere, emakumeen esplotazio eta bereizkeriaren bitartez. Hori dela eta, are harrigarriagoa da eskari eta borroka horiek arlo instituzionaletan hain oihartzun urria edukitzea. Emakumeen antolaketan gertatutako aurrerapena eta hainbateko mobilizazioa ez datoz bat proposamen horiek botere instituzionalaren arlo publikoetan duten isla urriarekin.

Hain zuzen ere, ez da nahikoa zeregin politikoak berdintasun-hitzez betetzea, aldi berean emakume protagonistei sarrera, ahotsa eta izaera ematen ez bazaizkie. Orain, beraz, oso garrantzitsua da emakumeen partaidetza politikoaren agenda banan-banan eta taldeka osatzea.

Hegoaldeko herrialdeetako emakumeei begira eta politikan parte hartzeko oztopoen ondorioz, emakumeen partaidetza soziala etxeko eta erkidegoko berehalako premiei aurre egiteko moduko esparruetan gertatzen da. Emakumeek arlo pribatuan ematen diote hasiera partaidetza-prozesuari, eta, ondoren, erkidegoan, esparru horietan antolatzen dira, erkidegotik tokian-tokian zein nazio-mailan eragina edukitzeko, erkidegoaren arazoentzako konponbideak bilatzeko, euren bizi-baldintzak hobetzeko... Aldi berean, premia praktikoei eta estrategikoei erantzuten diete.

Emakumeek erkidego-mailan parte hartzen dutenetik, emakume batzuek herri-hautespeneko kargu publikoetan parte hartu behar dutela sentitzen dute. Emakume horiek erkidegoa

antolatzeke esparruetatik irteten dira, emakumeak arlo pribatuan utzi nahi dituen kultura matxistak pisu handia badauka ere.

Emakumeek eskubide eta betebeharrak politikoak eskuratu berri dituzte, baina ezin dituzte bete-betean erabili, euren herritartasuna bereizkeriatik bertatik erabili behar dutelako beti. Emakumeen eragin politikoa, ekintza kolektibo moduan, legitimatu egin behar da, eta zenbait arlotako itun, adostasun eta partaidetzetatik elikatu behar da. Hori dela eta, gizarte zibilaren eta estatuaren arteko harremana eta elkarreragina iraunkorrak izan behar dira. Horrez gain, benetako demokraziaren erabilera ere bada, eta, bertan, kultura politiko garenagoa sustatzen da, estatuko instituzioen eta herritarren arteko botere-harremanak eredu demokratikoagorantz bilakatu ahal izateko. Hartara, eraldaketa politikoa jarri behar da abian, pertsona guztien erabateko eskubideak bermatzeko. Horretarako, genero-ikuspegia hartu behar da kontuan, eta emakumeek agerpena zein ahotsa eduki behar dituzte negoziatzeko eta erabaki politikoak hartzeko eremuetan. Labur-labur esanda, emakumeek eskubidedun subjektu-kategoria eskuratu behar dute, solaserako zein ekintzarako subjektu kolektiboak izan behar dira eta hori guztiori mugimendu feministek borroka nahiz mobilizazio sozialetan duten zereginarekin bat etorri behar da.

Emakumeak eskubidedun subjektutzat eta herritartzat hartzen ez dituztenean, batez ere honako ezaugarri hauek dituen subjektu ilustratuaren eraketa partzialean hondoratzen dira sustraiak: gizona da, estatu-nazioko herritarra da, partaidetza politikorako gaitasuna du, familia-burua da, lan-merkatu arautuan dihardu... Aldi berean, emakume-subjektua ere eratu da, eta adierazitako irudiaren atzealdea da, batez ere familia-harremanen mundu pribatuan dagoelako lekuratuta. Gainera, bertan garatzen duen jarduera ez da kontuan hartzen interes ekonomikoegi begira, eta, horren ondorioz, ez da prestazio sozialik edo babes sozialerako eskubiderik sortzen. Agerikoa denez, hori guztia emakumeen egoeraren kontura egiten da, eta, horren ondorioz, "euren" gizonen menpe dauden subjektuak dira. Hona hemen egoera horren arrazoi nagusiak: sistema neoliberalerako menpetasun ekonomikoko mekanismoak eta arlo juridiko, erlijioso, moral, sozial eta sinbolikoko menpetasun-tresna ahaltzu-ahaltzuak. Izan ere, tradizio kultural eta ideologikoen arabera, oso modu desberdinean baztertu eta botatzen dituzte emakumeak eremu sozialetatik. Bazterketa horren ondorioz, emakumeak eta euren interesak babesik gabe geratu daitezke, legeak egiteko orduan, politika publikoen prestaketa eta plangintza egiteko orduan eta

eurengan eragina duten erabakiak hartzeko orduan; esate baterako, genero-indarkeriari buruzkoak direnean.

Beraz, emakumeen euren ukapenean oinarritutako gizonetzko herritartasuna eratu da. Emakumeak menpetasunez kontuan hartzen dituztenean, honako hauxe lehenesten da: eremu pribatua, euren autonomiarik eza, kudeatzean duten ezintasuna, etxe-arloko menpetasunarekin lotuta daukaten egoera zibila eta, batik bat, gainerako pertsonak zaintzeko eta artatzeko garatzen duten jarduera etengabea, nahiz eta ekonomietako zenbaki handietan kontuan hartuko ez dituzten.

Emakumeen bizi-esperientzia gizonena ez bezalakoa izan da eta da arlo indibidualean zein kolektiboan. Familia-unitateek emakumeen egituraketa edo antolaketa sozialak baldintzatu dituzte eta baldintzatzen dituzte bete-betean. Izan ere, emakumeak isolatu dituztenez, oso zaila izan da euren eskubideen inguruko kontzientzia kolektiboaren garatzea. Nagusi den kultura politikoak ez ditu kontuan hartu, eta ez die gizonen eurentzat egindako arau zein ohituren oihan nahasian barruratzeko aukerarik eman.

Hona iritsita, adierazitakoa adierazita ere, oso argi utzi beharra dago emakumeen menpetasun-egoerak edo botere edo ordezkarietako esparruetatik baztertzeko ohiturak ez duela inolako zerikusirik emakumeak bizitzaren aurrean jarrera pasiboa eduki eta harreman sozialetan men egiten duten subjektutzat edo bidegabekeriaren biktima iraunkortzat hartzeko joera subjektiboarekin, halakoetan kanpo-ahots desberdinek ordezkatu eta berrinterpretatu beharko lituzketelako une oro. Horren ondorioz, ez dago inolaz ere emakumeak esanekoak, otzanak, ez-borrokalariak... direla esaterik, nahiz eta sarritan halakoak emakumeen irudia azpimarratzeko eta lekurtzeko erabiltzen dituzten. Emakumeen jarreraren adierazgarri ez den bereizkeria eta zapalkuntza egoera objektiboaren argazkia egiten ari dira. Hain zuzen ere, bazterketa-egoera horren ondorioz, argi eta garbi dute esleitutako zereginak euren gain hartu behar ez dituztela eta genero-aginduak bete behar ez dituztela.

Zer gertatzen da mendebaldeko demokrazietan? Esparru juridikoan eskubide-berdintasuna egon arren, praktikan ez du eraginkortasunik. Horrez gain, mendebaldeko herrialdeetan (kasu honetan, Europar Batasunean) nagusi den demokraziako eredu formaletan onartutako arau juridikoek herritartasun-eskubidea ukatzen diete zenbait laguni, eta ehun

milaka lagun dira egoera horretan daudenak. Hain zuzen ere, pertsonak erkidego global bateko kideak direla sentitu dezakete, nazioarteko zein tokian tokiko mugimenduetan eskubideak aldarrikatu eta bertan parte hartu dezakete munduko edozein lekutan eta, aldi berean, eskubide berberak ukatu ahal dizkiete bizileku duten estatu-nazioan bertan.

Kontraesana dirudien arren, eskubide horiek pertsona guztien artean hedatzeko tentsio ahalsua dago. Eskubideak unibertsal bihurtzean eta pertsona guztiei ezartzean, pertsona guztiak berdinak badira ere, talde asko eta, batik bat, emakumeak baztertuta gertzen dira ezinbestean. Hartara, eskubideak (gure demokrazientzat eta kulturarentzat funtsezkoak direnak) jaurtitzeko arma moduan erabiltzen dira, kulturei, tradizioei eta ideologiei berdintasunezko kalitate demokratikoaren ziurtagiriak emateko. Milioika emakumek, lege musulmanen menpeko herrialdeetan, esaterako, bizi duten menpetasun jasanezinak inperialismoaren inbasio odoltsua ere justifikatzen du, nahiz eta desagerrarazi nahi omen dituenak baino zapalkuntza-egoera txarragoak eta heriotza gehiago sorrarazi. Konkista-eskubide sakratuaren aurrean gaude berriro, kasu honetan arrazoiak erlijiosoak ez diren arren, erlijio berri hau, hots, mendebaldeko demokraziak direlako errudunak?

Horrela, bada, eskubideen unibertsaltasun eta berdintasunaren printzipioak tranpa iraunkorra dira, eta, beste kultura batzuetako emakumeen eskubideen hedapenean aurrera egin beharrean, euren tradizio kulturalen mesedetan estigmatizatzen dituzte.

Aurrera eta geure eguneroko zereginari begira, esku hartzeko orduan ezarri nahi dugun agendarako tresnak ditugu prest, premiazkoa delako agenda zabaletan lehentasunak zehaztea, lan-estilo berriak egokitzea, estrategien sorreran sortzaileagoak izatea eta sarean lan egiteko metodologia berriak ezartzea.

Gure ustez, oso garrantzitsua da berriro ere “arlo pertsonala politikoa da” leolari heltzea ohikotasunetik haratago doan politikaren kontzepzioan eta ekintzarako mobilizazio-osa-gaia kontuan hartzea, politika publikoetan eragina eta partaidetza edukitzeko. Horretarako, euren esperientzia pertsonal eta kolektiboa politika bihurtzeko gai izatea da erronka, baina erronka hori ez da emakumeena bakarrik. Emakumeen esperientziak kontzeptualizatzea, zabaltzea eta arrazoitzea da helburua, eta arrazoi zein baldintzatzaile kolektiboekin

eta erkidegoan zein udalerrian desberdintasuna nahiz bereizkeria sorrarazten dituzten gainerako aldaerekin lotzea (esate baterako, etnikotasuna, adina, gizarte-maila...).

Oso premiazkoa da “emakumeok” nortasun kolektiboa eratzea. Horretarako, parte-har-tzaile aktibo eta subjektu politiko ahaltsuko partaide moduan berrerau behar dira emaku-meak. Aldi berean, gainera, subjektu horrek zenbait nortasuni erreparatu die, eta gizar-te-maila, etnia, sexu-nortasun, nazionalitate... arloko desberdintasunekin entronizatzen duen subjektu mestizo, ugari, anitzean birkokatzen gaitu. Partaidetzarako motibazioa ez da banan-banako aldaeratzat hartu behar, gainerakoekiko elkarreraginean eratu behar de-lako, nortasun kolektibo feminista ekintzarako pizgarritzat hartzen duten sareen bitartez.

Emakumeen mugimenduak eta mugimendu feministak oroimen historikoa berreskuratzeko prozesuetan izan duten zeresan handia eguneratu nahi dugunez, mugimendu horiek herrialdeen demokratizaziorantzko iragaitzan eta aurrerakuntzan egin dituzten ekarpenak eta lana jarriko ditugu agerian.

Zilegizkoa izan dadin, ekintza kolektibotzat hartutako eragin politikoak era guztietako es-parruak, agerpena eta ahotsak eduki behar ditu, unean-uneko ekintzen edo epe luzerako estrategien bitartez era guztietako itun, adostasun eta partaidetzetan oinarritutako lana de-lako (garapenerako lankidetzak-erakundeak, erakunde mistoak, sindikatuak, alderdi politi-koak, erakunde publikoak, ikerketa-institutuak...). Izan ere, egiturazko aldaketak lortzea eta desberdintasun-egoera gainditzea du helburu.

Eragile horien artean, garrantzi berezia dauka eskubidedun subjektuak diren etorkinen partaidetzak. Erakundeen sentsibilizazio-ekintzetan, emakume etorkinen elkarrekin hartu behar dira kontuan, eta, hasiera-hasieratik, emakume horiek bete-betean eta berdintasu-nean parte hartu behar dute herri-partaidetzarako eta eraginerako garatu beharreko edo-zein estrategiatan.

Ezinbestekoa da emakumeen antolakerak eta mobilizazio-arrazoiak (tokian-tokian, batez ere) prozesu politikotzat hartzea eta genero-interesei ahotsa emateko esparru instituziona-lak sortzea. Era berean, mugimendu feministaren edo emakumeen mugimenduaren bera-ren barne-aliantzak ere lortu behar direnez, emakumeen sareetako harremanak zein ko-munikazioa zaindu behar dira, eta barne-elkarrizketarantz egin behar da aurrera, egoera

hori gainditzeko. Oso garrantzitsua da antzeko sektoreekin itunpean lan egitea eta beste sektore batzuen tresnak zein trebetasunak geure helburuetarako erabiltzea (nazioarteko eta zigor-arloko zuzenbideetako tresnak, esaterako: itzal-txostenak), erakundeek estatu bakoitzeko instituzioen aurrean arautegi bereziei jarraipena eman diezaieten.



Esperientzia eraldatzaileak: Emakumeen eskubide ekonomikoak

Ekonomia Aldatzen ari diren Emakumeen Sare Latinoamerikarra (REMTE)



Ekonomia Aldatzen ari diren Emakumeen Sare Latinoamerikarra 1997an eratu zen, emakumeak modu kritikoan ekonomiaz jabetu zitezene; helburu horrekin, ideiak, eztabaidak, ekintzak eta ekimen politikoak sortu zituzten. Ikuspegi feministatik jokatzeko du, eredu ekonomikoaren eta militarizazioaren arteko harremana salatzen eta herrien arteko integrazio sozial eta ekonomiko sustatzeko asmoz.

Partaidetza aniztetik abiatzen den Sare honen helburu nagusia ekonomiaren eraldaketa da, eta berau osatzen duten kolektiboak 10 herrialdetakoak dira: Bolivia, Brasil, Txile, Kolonbia, Costa Rica, Ekuador, El Salvador, Mexiko, Peru eta Venezuelakoak, hain zuzen ere. Bertan, mugimendu feminista eraikitzearen asmoa duten baserrietako eta hirietako emakumeak, oinarrizko erakundeak, GKEak eta erakunde akademikoak elkartzen dira.

Garrantzitsua da nabarmentzea REMTEk Ameriketako Merkataritza Libreko Arearen, Merkataritza Libreko Itunen eta Merkataritzaren Munduko Erakundearen aurkako etengabeko borroketan parte hartzen duela, eta, bere par-

taidetza duten Plataformekin batera (Emakumeen Munduko Martxa, Munduko Foro Soziala, Mugimendu Sozialen Asanblada, Aliantza Sozial Kontinentaleko Emakumeen Kontseilua eta Mugimendu Sozialen Minga Informatiboa, besteak beste) txirotutako herrialdeen kanpoko zorrak ez ordaintzearen alde egiten duela.

REMTEk helburu hauen alde egiten du lan:

- Aldaketa globaleko eta eredu neoliberalaren aurkako proposamenak lantzea, ikuspegi feministatik.
- Emakumeak aktore ekonomiko gisa hartzea, beraien ekarpen ugariak agerian jarri eta aldatu behar diren desberdintasun eta diskriminazio dinamikak ikusaraziz.
- Ezagutza, analisi eta prestakuntza feminista indartzea.
- Errealitate eta politika ekonomikoei buruzko analisiak egitea eta elementu horiek emakumeen bizitzarekin eta eskubideekin dituzten loturak aztertzea.
- Teoria ekonomiko feminista hedatu eta eztabaidatzea, esperientzia eta ikuspegi

ugariz elikatutako diskurtso kritikoa den aldetik.

- Kanpaina edo ekimen tematikoak sustatzea, justizia ekonomikoaren eta generoko justiziaren izendatzaile komunarekin.
- Emakumeak borroka sozialen protagonista gisa indartzea, emakumeen espazioetan zein espazio mistoetan.

Informazio gehiago, hemen:
<http://movimientos.org/remte/>

Emakume nekazariak eta landa-giroa



Ekimen hau Landa Munduko Emakumeen Konfederazioak (CERES) antolatutako topaketa batetik sortu zen. Topaketa hura, hain zuzen ere, Nekazaritza eta Abeltzaintza Erakundeen Koordinakundeko (COAG) emakumeen sailarekin, Extremadurako COAGeko emakumeekin eta Bide Nekazaria Koordinakunde Europarrarekin (CEVC) lankidetzan sortu zen.

2010eko apirilean, Europako emakume nekazarien topaketaren barruan (nekazaritzan eta landa-garapenean izan nahi zuten zeregina definitzeko antolatu zen), “Emakume nekazariak, gure eskubideen alde” izeneko dokumentua idatzi zen, aldarrikapen hauekin:

1. Ustiategiaren benetako titulartasun konpartitua lortzea, eskubide hori gauzatze-ko zailtasun handiak daude eta.
2. Emakume nekazariak Gizarte Segurantzaren kotizatutako dutela bermatzea. Kontuan izanik familia nekazari gehienek ezin dutela bi pertsonaren kontribuziorik or-

daindu Gizarte Segurantzaren, eta emakumeak izaten direla estaldura hori gabe geratzen direnak.

3. Emakumeen lan produktiboaren balorizazioa. Horrez gain, neurri handi batean, ugalketa-lana ere badago, batez ere landa-giroan. Izan ere, zerbitzuak, baliabide sozialak eta zainketarako baliabideak falta dira.
4. Partaidetzarako espazio eta kanalak, erabakiak hartzeko eta betetzeko prozesuan. Hori oso lotuta dago emakume nekazariak nabarmentzeko asmoarekin.
5. Pertsonak eta pertsonentzat egindako elikadura-sistema produktiboaren aldeko borroka; izan ere, nekazaritza-produkzio neoliberal eta patriarkalaren eredu industrialak ez ditu emakumeak ordezkatzen, nekazaritza-produkzioaren proiektuak suntsitzen ditu eta gero eta lanpostu eskasagoak uzten ditu emakume nekazariarentzat.

6. Emakume nekazariak aintzat hartzea, emakume horien iritziaren bazterketa beraien aurkako indarkeria mota gisa identifikatu ostean.

Informazio gehiago, hemen:

http://www.ceres.org.es/documentos_infogeneral.php?documento=infoген/documentos/aperturacaceres.pdf

COAG: <http://www.coag.org/>

CERES:

<http://www.ceres.org.es/quienessomos.php>

Vía Campesina:

<http://www.viacampesina.org/sp/>

Erdialdeko Amerikako Emakumeak Bizitza Duinaren aldeko Erresistentzian



Espazio politiko anitz, autonomo eta trebatzailean artikulatutako Erdialdeko Amerikako emakumeen sarea da. Politika neoliberal globalizatailearen eta sistema patriarkalaren aurkako erresistentzian daude, eta prozesu politiko, ekonomiko, sozial eta kultural integratzaile, bidezko eta iraunkorrak indartu eta bermatuko dituzten estrategia eta proposamenak definitzen dituzte, emakumeen giza eskubideak bete eta ahalbidetu daitezten.

Mexiko, Guatemala, El Salvador edo Costa Rica-ko erakunde feministek osatzen dute Sarea, eta ekonomia feministaren ikuspuntutik egiten dute lan, Erdialdeko Amerikan indarrean dagoen merkatu-ereduaren aurkako kanpainak artikulatuz eta, besteak beste, Merkataritza Libreko Itunen (MLI) ezarpenak dituen ondorio larriei buruz ohartaraziz. Emakumeen eskubide ekonomikoak modu izugarrian kaltetzen dituzten politiken aurrean antolatutako emakumeen erresistentzia indartzen eta oinarritzen duten trebakuntza-ekintzak egin izan dira Sarean.

Sarearen helburuen artean, honakoak nabarmendu ditzakegu:

- Erdialdeko Amerikako Emakumeak Bizitza Duinaren aldeko Erresistentzian erakundeak dituen estrategiei buruzko informazioa, MLIren onarpenaren aurkako koinuntura eta tokiko agendak konpartitzea, parte hartzen duten erakundeen arteko lotura organikoa indartu dadin.
- Tokiko agenden eta Erdialdeko Amerikako kointzidentzia edota dibergentzia puntuei buruzko hausnarketa kolektiboa egitea.
- Emakumeei MLIren aurka egindako ekintzen gaineko informazioa ematea eta aurkakotasuna oinarritzeko argumentuak eskaintzea.

Aldarrikapenen artean, hauek nabarmentzen dira:

- Erdialdeko Amerikako herrialdeetako parlamentuetan Estatu Batuekiko Merkataritza Libreko Ituna (CAFTA, ingelesezko siglen arabera) eta Europarekikoa ez daitezela berretsi eskatzea, duten eragin

negatiboagatik eta emakumeen aurkako sexismoa, arrazakeria, bazterkeria eta terrorismoa sustatzen dutelako eta emakumeen ugaltze-lana areagotzen dutelako.

- Baliabide naturalak eta oinarrizko zerbitzuak (osasuna, ura eta hezkuntza) ez pribatizatzeke eskaera egitea, horrek txirotasunaren feminizazioa areagotzen du eta.
- Emakumeek, modu unibertsalean, oinarrizko zerbitzuak eta lurra erabiltzeko aukera izango dutela bermatzen duten neurriak sustatzea, eta bizimodu duinerako giro osasungarria ere sustatzea.
- Emakumeenganako indarkeria sorrarazten eta areagotzen duten militarizazioa eta fundamentalismo erlijiosoak baztertzea.
- Emakume indigenen, jatorri afrikarreko emakumeen, trebetasun desberdinen bat duten emakumeen, lesbianen, bisexualen, sexuaren langileen eta HIESarekin bizi-tzen ari diren emakumeen bazterketaren aurka agertzea.
- Herri indigenen aintzatespena eskatzea eta euren identitate kulturala, lurraldea eta biodibertsitatea errespetatua izan dadila eskatzea (herrien legezko jabetza).
- Feminizidioda dela eta, Erdialdeko Amerika giza hondamendiko gunetzat hartua izan

dadin eskatzea. Era berean, gizarte mugimenduak emakumeen bizitzaren defentsaren gaia lehentasunezkoztat jo dezala bere agendan.

Informazio gehiago, hemen:
<http://mesoamericanas.blogspot.com/>

Etxe Barrukoak, Bizkaiko Etxeetako Emakume Langileen Elkartea (ATH/ELE)

ASOCIACIÓN DE TRABAJADORAS DE HOGAR

ATH-ELE

ETXE LANGILEEN ELKARTEA

Etxe Barrukoak, Bizkaiko Etxeetako Emakume Langileen Elkarteak, etxeetako langileen eskubideen aldeko borrokan aspaldi sendotutako elkarteak dira; izan ere, 1985etik aurrera, oraindik ere indarrean dagoen dekretu bat salatzen hasi ziren. Hain zuzen ere, dekretu horrek modu bidegabean arautzen du etxeetako langileen lan egoera, eta ez ditu jasotzen etxeetako langileen aldarrikapenak.

1986an sortu zuten elkarteak, legedia aldatzeko asmoz eta, horrela, lanerako baldintza duinak bermatuko zirela lortzeko. Modu horretan, etxeetako lanak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean jasotako beste edozein lanen parekoa izango litzateke.

Gaur egun, zenbait eskakizun egiten ari dira, bidezko araudi batean jaso daitezkeen neurri zehatzak planteatuz. Modu horretan, eskubide hauek jasoko dituen Lege bat proposatzen dute:

- Idatzizko lan-kontratua.

- Gehienez ere, astean 40 orduko lanaldia.
- Gaueko zainketako lanetan, gehienez ere, 21:00etatik 08:00etara bitarteko lanaldia, eta, asko jota, astean bost egunez.
- Egindako lanekin bat etorriko den soldata, eta, behintzat, gutxieneko soldataren %120ko soldata, 40 ordurako.
- Etxean lo egiten dutenen kasuan, mantenuagatiko eta ostatua emateagatiko deskontuak debekatzea, eta, kanpotik datozenen kasuan, deskontuak idatziz jaso beharra, kontzeptu bakoitzagatik zenbat ordainduko den adieraziz eta soldataren portzentajea adostu gabe.
- Astean egun eta erdiko atsedena.
- Beste sektoreetan bezala, kargua uzteagatiko kalte-ordaina.

Gizarte Segurantzari dagokionez, neurri hauek eskatzen dituzte:

- Alta ematea Gizarte Segurantzari, lehenengo lanordutik.
- Kotizatzeko obligazioa, beti enplegatzaileen eta langilearen artean banatuta.
- Lan istripuak aitortzea.
- Gaixotasunagatiko eta istripuagatiko baten tratamendua, erregimen orokorrean bezala.
- Langabeziagatiko prestazioa.

Lege-aholkularitzako doako zerbitzua dute, langileei jakinarazteko zeintzuk diren euren eskubideak eta nola eskatu eskubide horiek. Eta kanpainak sortzeaz gain, ATH/ELEk etxeko langileen eskubideak defendatzen dituzten beste talde batzuekin batera egindako kanpainak ere babesten ditu. Talde horiekin kolaboratzerakoan, indarrak elkartu nahi dira, etxeko enplegua arautzen duen errealitate normatibo bidegabea salatze eta etxeko langileei betidanik ukatu izan zaizkien lan eskubideak bete daitezen eskatzeko.

Informazio gehiago, hemen:
<http://www.ath-ele.com/>

Esperientzia eraldatzaileak
Gatazka egoeran dauden emakumeak



Amismaxaj elkarte



Elkarte hau 11 eta 65 urte bitarteko emakumeek eratzen dute. Elkartearen xedea emakumeek politika arloan duten parte-hartzea hobetzea da, Santa Maria Xalapan Jalapa aldeko erkidegoetan (Guatemala). Era horretan, gizonen eta emakumeen artean dauden botere-harreman desorekatuak hobetu ahal izango dira, eta emakumeen bizitzaren kalitateak ere hobera egingo du, barne-barneko arlotik, arlo pribatutik eta publikotik. Horretarako, ekonomia-, kultura-, gizarte- eta politika-aldeko proposamenak lantzen dituzte.

Elkartean antolatzen dira emakumeen arteko harreman berriak eraikitzeko, eta harreman berri horien oinarriak aniztasunekiko begirunea eta onespina dira. Horrela, ekintza politikorako prozesuak bultzatu nahi dituzte, emakume xinka gisa aurrean duten errealitatea eraldatzeko.

Hainbat ardatz lantzen dituzte, hala nola, emakumeen parte-hartze politikoa eta buruzagitzia, emakumeen aurkako bereizkeriarik eta arrazakeriarik ez egotea, edota emakumeentzako hautabide ekonomikoak lortzea,

prestakuntza, gaikuntza, eragin politikoa eta xinka nortasuna sendotuz, ondasun naturalen babesa ere barne hartuta.

2008. urtetik hona, hainbat ekintza egin dituzte, beraien lurraldeetan dauden multinazional askok meatze-, eta petrolio-ustiatzeetan eta zentral hidroelektrikoetan eragiten duten esplotazioa salatzeke. Herrialde indigenek egin behar izan dituzten lekualdatzeak eta jasan dituzten giza eskubideen eta eskubide historikoen urratzeak lantzen dituzte, eta arreta berezia egiten diete erkidego xinketako emakumeek eta emakume buruzagiek jasan dituzten mehatxuei eta bortxaketei.

Alderdi hauek salatzen dituzte:

1. Gaur egun, Jalapan 24 lizentzia banatu dituztela, petrolio- eta meatze-miaketak eta ustiatzeak baimentzeko, eta hori eraso larria da, herrialde indigenek duten autodeterminaziorako eskubidea urratzen baitu, herrialde indigenei ez baitiete ezer galdetu lizentzia horiek onesteko eta banatzeko orduan.

2. Jalapako departamenduan eta mendialdean, mehatxuak eta larderiakzko jokae-rak izan direla, alderdi batzuetako politi-kariek eta aliatuek mehatxu egin baitiete gizarteko eta erlijioiko buruzagiei eta agintari indigenei –hala gizonezkoei nola emakumezkoei–. Izan ere, buruzagi eta agintari indigena horiek beren herria zapaltzeko dauden era guztien aurka azaldu dira erabat, eta, beraz, uko egin diote emandako meatze-lizentzien bitartez multinazionalak bidegabeko aberastasun hori lortzeari.
3. Jalapako departamenduko diputatuek Errepublikako Biltzar Nazionalako Ingu-rumen, Ekologia eta Natura Baliabideen Batzordeko Presidentziako kideak direla.

Hau eskatzen dute:

1. Departamenduko agintariek begirunez errespetatzen ditzaten herrialde indigenek antzinatik duten kontsultarako eskubidea eta antolatzeke autonomia, eta indigenen taldeko eskubideen aurka doan erabaki-rik har ez dezaten.
2. Herrialde indigenen autonomiaren alde Estatuak sinatu dituen akordioak, lege-ak, hitzarmenak eta itunak errespetatzen ditzaten.
3. Mendialdeko ekintza politika zehazten duten erkidegoko erabakiak errespetatzen ditzaten.

4. Erkidegoan segurtasuna bermatuta ego-tea. Izan ere, hainbat emakumek meha-txuak jaso zituzten, boto emateko eskubi-dea emakumeen artean jakinaren gainean egonda eta gardentasunez bultzatzen aritu ondoren (2003), eta, orobat, meatzetako auzia eta arto transgenikoz landutako lu-rren arazoa aztertzeke beren burua anto-latu ondoren (2009).

Indigenen giza eskubideen eta oinarritzko as-katasunen egoera aztertzen duen Nazio Ba-tuen errelatore bereziari bidalitako gutun batean, agerian jartzen dute emakumeak desabantailan daudela eta zapalkuntza ja-saten dutela, arpilatzeke dauden politika neoliberal etengabeen ondorioz:

“Guatemalako lurraldean kokatuta, mila urte baino gehiago eman dituzten jatorritzko bi herrietako bat gara. Maien herriarekin batera, xinka herria da bertan sorburua duen beste herria. Mundu-ikuskera, hizkuntza, lurralde-tasun, gobernu eta erkidegoko antolakuntza desberdina izan ditu, sortu zenetik gaur egun arte. Alabaina, desberdintasun hori guztiz ezezaguna da mendebaldeko antropologo-entzat, xinken hizkuntza hiltzorian dago ia, po-litika publiko bat ere ez da prestatu gure herri-tik edota gure herriari zuzenduta, eta Estatuaren aurrekontu-sailak ez du lerro bere-zi bat ere jasotzen egoera orekatzeke, hau da, gure nortasuna, hezkuntza eta osasuna in-dartzeko eta biziberritzeke. Emakume xinken

egoera are latzagoa da oraindik, gure baldintzak larriagoak dira, desabantaila historikoan baikaude, zapalkuntza patriarkalaren eta txirotzeko prozesu sistematikoaren ondorioz. Gaur egungo gizartearekin erkatuta, desabantaila historikoan dagoen herrialde bat gara, egungo politika neoliberalak areago sakontzen eta larritzen baitute gure txirotze-prozesua, lurra ustiatzeko eta gure ondasun naturalak arpilatzeke duten sistema berriaren bidez.”

Harremanetan jartzeko: amismaxaj@yahoo.es

Esperanza proiektua



Esperanza proiektua Congregación de Religiosas Adoratrices kongregazioak prestatu duen lan bat da, eta haren xedea hau da: Estatu espainiarrean emakumeen salerosketa ikusgai jartzea, arazo hori nabarmentzea, eta jendea horrekiko sentibera bihurtzea. 1999. urte-tik hona, proiektu bat garatzen jardun dute, gizakien salerosketaren biktima diren emakumeei osoko laguntza emateko. Salerosketa horren xedea, gehienbat, prostituzioa izaten da, baina mirabekeriazko ezkontzak, etxeko lanak, behartutako lanak edo esklabutzako baldintzetan egiten diren bestelako jarduerak ere badaude tartean.

Hainbat jakintza-arlotako profesionalen talde batek jarduten du proiektuan; eta, beraien ustez, gizakien salerosketa giza eskubideen urratzea da. Besteak beste, emakume abokatuak, hezitzaileak, gizarte-langileak, kultura arteko bitartekariak, psikologoak eta bestelako profesionalak daude taldean.

Horrez gain, estu-estu aritzen dira lanean beste erakunde batzuekin, hala nola, Red

Española Contra la Trata de Personas (www.redcontralatrata.org) eta Alianza Global contra la Trata de Mujeres (GAATW) (www.gaatw.org) erakundeekin.

Giza eskubideen ikuspegitik, estatu espainiarrean gizakien salerosketari buruz dagoen araudia Europako eta nazioarteko araudietara behar bezala egokitzeko dagoen prozesu berriaren esparruan, Espainiako gobernua sexu-esplotazioa xede duen gizakien salerosketaren aurkako Osoko Plana onetsi du (2008ko abenduaren 12an), eta Gizakien Salerosketaren Aurkako Borrokari buruzko Europako Hitzarmena berretsi du (2009ko apirilean). Hitzarmen hori, bestalde, 2009. urteko abuztuan jarri zuten indarrean. Ildo horretan, Esperanza proiektuak eta GAATW erakundeak alderdi hauek aldarrikatzen dituzte:

- Biktimen babes eraginkorra lortzea, babes horrek hutsune asko baititu oraindik.
- Legeak aldatzea eta ezartzea, biktimen babesa bermatzeko eta egoitza- eta lan-

baimena lortzeko aukera emateko, agintariek lankidetzan aritu edo salaketa egin beharrik gabe, Europako Kontseiluaren Hitzarmenak ezarritakoari jarraiki.

- Gizakien Salerosketaren aurkako Planean, biktimak identifikatzeko neurriak eta protokoloak sartzea, horixe baita dagoen bide bakarra biktimak identifikatzeko, eta, beraz, biktimek eskubideak eta babesak lortzeko.
- Biktimen giza eskubideen babesari lehen-tasuna ematen dion ikuspegia benetan ezartzea, migrazioaren kontrola, ordena publikoa edo antolatuta dauden sare mafiosoen jazarpena bezalako gaiak bigarren mailan utzita.
- Ekonomia-, teknika- eta giza baliabide eta bitarteko gaitu aski izatea, eta, orobat, lurralde nazional osoan biktimei arreta eta babesak emateko sarea antolatzea.
- Planean jasota dauden babes- eta arreta-neurriak ezartzea, gaur egun bazter utzita dauden erkidegoko pertsonen.
- Nazioarteko esparru juridikoan jasota dauden pertsonen salerosketako beste molde batzuk berne hartzea, hala nola, behartutako ezkontzak, behartutako lanak eta abar.

Argibide gehiagorako:

www.proyectoesperanza.org/nuevaweb/

Genero, Demokrazia eta Giza Eskubideei buruzko Behatokia



Observatorio
Género Democracia
Derechos Humanos
OGDDHH

Genero, Demokrazia eta Giza Eskubideei buruzko Behatokia (OGDDHH) gatazka armatuko egoeran dauden nesken eta emakumeen eskubideak gerraren ondorioak nozitzen dituzten lurraldeen barrualdera atzera itzultzeko lanetan hamar urte baino gehiago daratzen lan-taldearen ikasketen emaitza da. Behatokiak ikusgai jarri nahi du, Kolonbian barruko gatazka armatuaren esparruan, sistematikoki urratzen direla lekualdatuta dauden emakumeen eskubideak.

Behatokiak duen erronka nagusia Generoko Justiziaren Agenda da. Behartutako lekualdatze-delituaren biktima diren Lekualdatutako Emakumeen Ligako emakumeei justiziarako eskubide eman nahi die atzera, batez ere, Generoan Oinarritutako Sexu Indarkeriako krimenen biktima direnei.

Hona hemen Kolonbian emakumeen aurka egin diren gizateriaren aurkako krimenak

ikertzeko tratamenduari dagokionez Behatokiak eskuratu dituen lorpen batzuk:

1. Fiskaltzen Zuzendaritza Nazionalak eta Giza Eskubideen eta Nazioarteko Eskubide Humanitarioen Batasun Nazionalak zuzenean gidatzen duten Fiskaltza Nagusiak ikur gisa hartzea Lekualdatutako Emakumeen Ligaren kasua.
2. Kolonbiako Zigor Kodean jasota ez dauden arren, gatazkako biktima diren Kolonbiako emakumeen aurka izan diren krimenak zehaztea.
3. Lekukotasuna emateko prozesuan, biktimei laguntza psikologikoa ematea.
4. Gizarte zibilari argi erakustea zer-nolako aurrerapenak izan diren generoan oinarritutako sexu-indarkeriak eragindako krimenak epaileen eskuetan jartzeko.

5. Behartutako lekualdatzeen biktima izan diren 144 emakumeren lekukotasunei buruzko informazio sistematizatua ematea.
6. Fiskaltzari ematea generoan oinarritutako sexu-indarkeriari buruzko 16 lekukotasunen informazioa.
7. Kolonbiako Errepublikako Senatuan gomendioak egitea generoan eta lekualdatzean oinarritutako sexu-indarkeriari buruz, jendaurreko bi entzunaldiren bidez.
8. Nazio Batuen agentzien sostengua lortzea.
9. Kolonbiako Gorte Konstituzionalean zuzenean esku hartzea, behartutako lekualdatze-krimenaren biktima diren emakumeentzat babes-neurriak lortzeko (2004 Autoa); eta, horrez gain, osorik berregitea behartutako lekualdatzea pairatzen duten emakume buruzagiei babes emateko politika, besteak beste, Lekualdatutako Emakumeen Ligari dagokiona.

Argibide gehiagorako:
www.observatoriogenero.org

Iberoamerikako gaiei buruzko Ikerketa eta Espezializazio Elkarte (AIETI)



AIETI erakundeak, tokiko bazkideekin batera arituta, laguntza ematen du elkarren mende-koak, bidezkoak, eta elkartasunaren eta parte-hartzearen sustatzaileak diren gizarteak eraikitzeko. Ildo horretan, tokiko eta eskualdeko garapena bultzatzeko prozesuak bultzatzen ditu, konpromisoa hartzen du pobrezia-aren aurkako borrokan, eta herritartasuna sendotu eta generoko berdintasuna aintzat hartzen duen demokrazia indartu nahi du, tokiko kulturen gaitasunak eta indarrak oinarritzat hartuta.

Orain dela 25 urtetik hona, AIETI erakundeak ikerketa- eta aholkularitza-lanak egin ditu, eta argialetxe bat, prestakuntzarako instituzio bat eta garapenerako gobernuz kanpoko erakunde bat eratu ditu; era berean, Latinoamerikako sare bat sortu du, Latinoamerikako aurkako alderdi garrantzitsuekin harremanak eta lankidetzak lantzeko.

2010eko maiatzaren 17an eta 18an Madrilan izan zen Europar Batasunaren eta Latinoame-

rikako eta Karibeko herrialdeen arteko VI. Gailurra. Bertan, AIETI erakundeak jardunaldi batzuk antolatu zituen Latinoamerikako feminizidioari buruz. Hainbat erakundek hartu zuten parte, eta, ondorioz, jakinarazpen bat eman zen argitara. Horri jarraiki, Latinoamerikan emakumeen aurkako indarkeria eskualdeko arazoa da, ez ditu geografia-, ekonomia- eta gizarte-mugak errespetatzen, eta muturreko moldeak hartzen ari dira gero eta gehiago, bereizkeriaz, pobreziaz eta zigorgabetasunez beteriko ingurune batean.

Honako eskaera hauek egin zizkieten VI. Gailurrean parte hartu zuten herrialde guztiei:

- Gutxieneko alderdiak jasotzen dituen akordioa VI. Gailurraren agendan berehala sartzea, eta, bertan, zeharka eta bereziki barne hartzea generoko berdintasunari buruzko gai guztiak, emakumeen aurkako indarkeriaren molde eta adierazpen guztiak –bereziki, feminizidioa– desagerrarazteko.

- Europan eta Latinoamerikan administrazio publikoa eta, oro har, herritarrak sentibera bihurtzea, genero-indarkeriaren prebentzioari, ikusgaitasunari eta salaketari buruz; eta, horretarako, komunikaziorako osoko estrategia bat baliatzea, jardunbide egokien gida barne hartuta.
- Baliabide ekonomiko bereziak esleitzea eta fiskalizatzea, emakumeen aurkako indarkeria –batez ere, feminizidioak– desagerrarazteko, zigortzeko eta horri aurrea hartzeko.
- Generoko alertako protokolo bat sortzea eta ezartzea, gai honi buruz dauden nazioarteko akordioak urratzen dituzten herrialdeak gaitzesteko eta zigortzeko.
- Nazioarteko konpromiso guztiak eraginkortasunez betetzea, bai eta ezar dakioken jurisprudentzia ere, emakumeen giza eskubideak urratzeari eta hori konpontze-ari dagokionez.
- Hala egin ez duten estatuek Nazioarteko Zigor Gortearen Erromako Estatutua berrestea.
- Feminizidio delitua nazioartean sailkatzea, eta horretarako behar diren tresna lotesleak ezartzea.

Argibide gehiagorako: www.aieti.es

Esperientzia eraldatzaileak: Emakumeen eragin politikoa eta herri-partaidetza



Emakumeen Mundu Martxa



Emakumeen Mundu Martxa ekintza feministen nazioarteko mugimendua da, eta bost kontinenteetako oinarrizko taldeak eta erakundeak biltzen ditu, hain zuzen ere, emakumeen aurkako indarkeria eta pobrezia sorrarazten dituzten arrazoiak desagerrarazteko lanean aritzen diren taldeak. Mugimenduak gai hauek lantzen ditu bereziki: bakea eta desmilitarizazioa, trafiko sexuala, lesbianen eskubideak, hautabide ekonomiko feministak, itunak, mundu-mailako bihurtzeko prozesua eta komunikabideak.

Mugimendu honen balioen eta ekintzen xedea gizarte-, ekonomia- eta politika-arloko aldaketa lortzea da, eta, ildo horretan, alderdi hauek dituzte oinarritzat: elkartasunak globalizatzea, gizonen eta emakumeen eta, orobat, emakumeen eta herrialdeen arteko berdintasuna lortzea, emakumeen artean dagoen aniztasuna eta haien estrategien ugaritasuna onestea, emakumeen buruzagitza balioestea, eta emakumeen eta gizarteko beste mugimendu aurrerakoi batzuen arteko itunak indartzea.

Mugimendu honek dituen helburuak 17 aldarrikapenetan egituratuta daude, eta honako hauek dira:

1. Emakume eta oinarrizko erakunde guztien arteko elkartasunezko mugimendu zabala indartzea eta hari eustea, Martxa mundu osoko emakumeen baieztapen-ikurra izan dadin.
2. Berdintasuna eta justizia sustatzea emakumeen eta gizonen artean eta, orobat, emakumeen eta herrialde guztien artean.
3. Herri-hezkuntzako prozesu zabala eraikitzen eta sendotzen jarraitzea, bertan, emakumeek beren kabuz aztertu ahal izan ditzaten jasaten duten zapalkuntzaren eta bereizkeriaren arrazoiak, eta horren aurrean izan daitezkeen hautabideak.
4. Munduko emakumeen mugimenduek batera dituzten aldarrikapenak eta hautabideak abian jartzea, tokian bertan, estatuan, eskualdean eta nazioartean, emakumeen aurkako indarkeriari eta pobrezari buruzko gaietan.

5a. Presio politikoa egitea gobernuei eta alde askotako instituzio politikoei (adibidez, Nazio Batuen Erakundeari), beharrezkoak diren aldaketak egin ditzaten, mundu osoko emakumeen bizitzaren kalitatea eta baldintzak hobetu ahal izateko. Honelako alderdiak hartuko dira barne: gatazkak era baketsuan konpontzeko eta armagabetzeko politikak, zigorgabetasuna eta ustelkeria desagerraraztea, bortxaketa gerrako arma gisa ez baliatzea, atzerriko militarren okupazioari eta agerpenari bukaera ematea, eta, azken batean, politika- eta ekonomia-arloko blokeorik ez ezartzea.

5b. Nazioarteko finantza- eta ekonomia-arloko instituzioak eta instituzio militarrek salatzea eta haiei uko egitea (Nazioarteko Diru Funtsa, NATO, Munduko Merkataritza Antolakundea, Munduko Bankua, eta, oro har, emakumeen borrokak baldintzatzen dituzten lankidetzako agentziak eta enpresa multinazionalak, etab.), emakumeak txirotzen eta baztertzen ditzutelako, eta emakumeen aurkako indarkeria sustatzen dutelako; eta, horren ordez, hautabidezkoak diren proposamen instituzionalak lantzea.

6. Oro har biztanle guztiak eta gizarte-mugimenduak kontzientziatzea, behar diren aldaketak sustatu eta gauzatu ditzaten, mundu osoko emakumeen kokapena, baldintzak eta bizitza-kalitatea hobetzeko.

7. Ekintza eta proposamen feministak prestatzea eta bideratzea, horren bidez, behar bezala salatzekeo baliabideak ustiatzen eta hondatzen, eta klima-aldaketa eta bioaniztasunaren galera sorrarazten dituzten korporazioak, eta ekonomia- eta finantza-instituzioak. Borroka egitea ingurumeneko baliabideak kudeatzeko burujabetza eskuratzeko, eta, era horretan, bestelako garapeneredu bat lortzeko, oraingo eta etorkizuneko belaunaldien oinarrizko beharrezkoak bete ahal izango dituen eredu.

Mugimenduak egin duen azken jarduera Nazioarteko III. Ekintza izan da, eta 2010eko martxoaren 8tik urriaren 18ra bitartean izan da. Ekintza horren bidez, gerrak eta gatazkak, eta emakumeek egoera horietan nozitzen duten egoera salatu nahi izan dituzte. Denboraldi horretan, hainbat ekintza egin dituzte bost kontinenteen barrena. Ekintza horiei buru emateko, martxak eta aldi bereko ekintzak egin dituzte urriaren 7a eta 17a bitartean, eta, orobat, nazioarteko mobilizazio bat garatu dute Kivu Sur-en, Kongoko Errepublika Demokratikoan. Era horretan, areago sendotu nahi izan dute emakumeek gatazkak konpontzeko prozesuetan duten rol nagusia.

Argibide gehiagorako:
www.marchamundialdelasmujeres.org

Emakumeak Kongresuaren Aurrean Plataforma

Emakumeak Kongresuaren Aurrean Plataforma (PMAC) estatu espainiarrean sexu- eta ugaltze-osasunerako eta haurdunaldia borondatez eteteko lege berria prestatzeko izan zen prozesuan eratu zen; lege hori 2010eko uztailaren 5ean sartu zen indarrean.

Estatu espainiarreko 87 erakunde feministek eratzen dute plataforma; eta, horrez gain, Latinoamerikako hainbat erakunderen eta sare feministen sostengua du. Plataforma eratzen duten erakundeek oso ikuspegi desberdinak dituzte haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruz, baina, hala ere, partekatzen dituzten zenbait gairen inguruan egituratzen dira. Gai horiek funtsezkoak dira legegintzako prozesu horretan eragin politikoa izateko, eta, azken batean, legeak babesa eman diezaion oroz gain emakumeek beren gorputzari eta amatasunari buruzko erabakiak hartzeko duten eskubideari, betiere, osasun-segurtasuna eta segurtasun juridikoa izanda.

Besteak beste, aldarrikapen hauek aurkeztu dituzte, eragina izan duten zenbait ekintzaren bidez:

- Abortatzeak ez die ziurgabetasun-gabezia juridikorik ekarri behar emakumeei, ez eta osasun-arloko langileei ere. Gure gorputzei buruz erabakiak hartzeko dugun eskubidea lege berezi baten bidez arautu behar da, eta eskubide hori ez da gehiago delitu gisa sailkatu behar Zigor Kodean, betiere, emakumearen borondatearen aurka edo arduragabekeriaz jokatzuz egiten ez bada.
- Haurdunaldiaren borondatezko etendurak osasun-sare publikoan bermatuta egon behar du, eta osasun-arloko langileen kontzientzia-eragozpena arautu behar da.
- Haurdunaldiaren borondatezko etendura ez da inola ere murriztu behar, haurdun dagoen emakumearen osasun-arrazoiak direla-eta, haurdunaldiak irauten duen bitartean.
- Emakume gazteek haurdunaldiaren borondatezko etenduraren arloan dituzten sexu- eta ugaltze-eskubideak arautuko dira gainerako emakumeen eskubideek duten araudi berberari jarraiki.

- Erabaki askeko epeak 24 aste bitartekoak izatea onartuko da.
- Antisorgailuek farmaziako beste produktu batzuek duten tratamendu bera izango dute.
- Lehen eta bigarren hezkuntzako curriculu-metan afekzio- eta sexu-arloko hezkuntza sartuko da.
- Alderdi politikoek eta erakunde feministek berdintasunean oinarritutako elkarrizketa arina eta sistematikoa izango dute, lege-proiektua eztabaidatzerakoan.

Haien lanean ondo islatuta geratu da, lege-aurreproiektuaren edukian sartu diren hainbat hobekuntzaren bidez; proposamen kontserbadore batzuk aldatu, eta beste batzuk geldiaraztea lortu dute. Besteak beste, aurre-
rapen hauek nabarmendu behar ditugu:

- Proiektutik kendu da lehenbiziko 22 aste-etan bizitza edo osasunerako arriskua dagoen kasuetarako dauden aurretiazko irizpenen kopurua handitzeko proposamena.
- Azken aldiko antisorgailuak Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu komunuen zorroan sartu dira.
- Haurdunaldia borondatez eteteko jardute klinikoaren ikerkuntza eta prestakuntza barne hartuko dira Medikuntzarekin eta Osasun Zientziekin zerikusia duten karre-
ren curriculum-programetan.

- Kontzientzia-eragozpena arautuko da, eta, horrenbestez, banaka, aurretiaz eta idatziz egin beharko da, ez du eraginik izango haurdunaldiaren borondatezko etendura-
ren aurreko eta ondoko arretan, eta ez du ezertan kaltetuko prestazioaren kalitatea edo prestazioa jasotzeko sarbidea.

Plataformak lanean jarraitu du eragin politiko-
koa izateko asmoz, 2/2010 Legea garatzen duten araudiak aztertuz, eta ildo horretan sالاتu du *“emakumeen eskubideak babesten ditzuten elkarteei ez ikusiarena egiten zaiela, eta ez direla aintzat hartzen Lege hau garatzeko izan duten parte-hartzea eta egin ditzuten ekarpenak. Aitzitik, nabaria denez, Errege Dekretuen emaitza sektorerik kontserbadorenen interesen arabera eginda dago, eta sektore horiek emakumeen eskubideen aurka daude erabat. Onetsi den prozedura oztopo-lasterketa oso bat da emakumeentzat, erabat zailtzen eta oztopatzen baitu emakumeek erabakiak hartzeko prozesua”*. Horrenbestez, plataformak aditzera ematen duenez, lanean jarraituko dute ekintzak eginez eragin politikoa izateko, horien bidez, emakumeen sexu- eta ugaltze-eskubideak bermatuta egon daitezen, batez ere emakumeek beren gorpuzari buruzko erabakiak hartzeko duten esku-
bidea.

Argibide gehiagorako:
www.mujeresanteelcongreso.blogspot.org

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko sare feminista



Honako erakunde hauek osatzen dute emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko sare feminista El Salvadorren: Asociación de Mujeres por la Dignidad y la Vida (Las Dignas), Movimiento de Mujeres Mélida Anaya Montes (Las Mélidas) eta Organización de Mujeres Salvadoreñas por la Paz (ORMUSA). Erakunde horiek guztiek konpromisoa hartu dute emakumeen bizitzarako eta segurtasunerako eskubideekin, eta, beraz, bat egiten dute ahalegin horren alde, espazio publikoetan eta pribatuetan emakumeen aurkako indarkeria errotik desagerrarazteko laguntza emate aldera.

Las Dignas erakunde politiko feminista da, 1990. urtean sortua. Genero-arloko menderakuntza ezabatzeko laguntza ematen du, eta, era horretan, demokrazia, justizia soziala eta justizia ekonomikoa lortu nahi ditu (www.lasdignas.org). Las Mélidas erakunde feminista autonomoa da, 1992. urtean sortua. Laguntza ematen du emakumeen baldintzak eta koka-pena eraldatzeko. Ildo horretan, berdintasu-

nean oinarritutako harremanak sustatzen ditu gizartean, eta, horretarako, jarduerak egiten ditu emakumeak gizarteko hainbat sektoretan antolatzeke, prestatzeko eta gaitzeko (www.lasmelidas.org). ORMUSA erakunde feminista 1985. urtean sortu zuten. Haren bidez, emakumeen berdintasuna, generoko berdintasuna eta ekonomia-, gizarte- eta politika-arloko jabekuntza sustatu nahi dituzte. Horretarako, eragin politikoa duten ekintzak antolatzen dituzte, eta, justiziara iristeko sarbidea errazteaz gain, tokiko eta estatuko garapena sustatzen dute, betiere, giza eskubideak aintzat hartuta (www.ormusa.org).

Sare honek egindako esperientzien artean, besteak beste, Herritarren Segurtasunerako Emakumeen Behatokia nabarmendu behar dugu. Behatokia oso tresna egokia da El Salvadorren emakumeen segurtasunaren aurka doazen indarkeria eta gaizkiletasuna biltzeko, aztertzeko, horren berri emateko, trukatzeko eta hedatzeko.

Behatokia sortu zen, kezka larria piztu baitzen, emakumeen giza eskubideak etengabe borxatzen zituztela ikustean, eta emakumeen aurkako indarkeriak herrialde horretan duen ikusgaitasun urria eta zigorgabetasuna aintzat hartuta.

Horrez gain, emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiak salatzen dituen ahotsa da, eta El Salvadorreko biztanleen parte-hartze eraginkorra sustatzen duen lekua ere bai; azken batean, genero-arloko berdintasuna eraikitzea eta emakumeen segurtasuna, bizitza eta eskubideak errespetatu daitezkeen lortzea da bere xedea.

Argibide gehiagorako:

<http://www.observatoriodeseguridadciudadanadelasmujeres.org/>

Beste erakunde feminista batzuekin batera lanean arituta, Sareak *“Campaña Regional por el Acceso a la Justicia para las Mujeres”* izeneko kanpaina jarri du abian. Kanpaina horren helburuak hauek dira: Erdialdeko Amerikan eta Mexikon emakumeen aurkako indarkeria eta feminizidioa dagoen kasuetan justiziara iristeko sarbide egokia, eraginkorra eta bidezkoa sustatzea; horrelako kasuetan zigorgabetasuna gutxitzea, eta, horretarako, estatuak neurri egokiak hartzea bultzatzea; giza eskubideak babesten dituzten nazioarteko hainbat instantziari dei egitea, talde bat osa dezaten eskualdean dauden arazoak aztertzeke, infor-

mazioa biltzeko eta ondo ezagutzeko, eta, horretarako, emakumeen aurkako indarkeria eta feminizidioko indize garaiak dituzten aldeetara joatea; eta, era berean, justiziako langileak behar bezala gaitzea, besteak beste, emakumeen aurkako indarkeriari eta feminizidioari buruzko gaietan.

Ekologistak Martxan

ECOLOGISTAS
en acción

Ekologistak Martxan estatu espainiarreko 300 talde ekologista baino gehiago biltzen dituen federazioa da. Azken urteotan, erakundeko emakumeen ekintzaile-talde bat gogor aritu da lanean, ekofeminismoaren ikuspegiei eta aldarrikapenei buruzko prestakuntza emateko, jendea gai horri buruz sentibera bihurtzeko eta gizartean eragina izateko. Lan hori hainbat argitalpenetan* bildu dute, baina, laburbilduta, haien ikuspegi nagusiak honako hauek dira:

- Taldeko imaginarioa aldatzea (modernotasuna, arrazoia, zientzia, emankortasuna eta abar). Gizartea, eta bereziki gizonak, birnaturalizatzea.
- Erabateko eraldaketa lortzeko oinarri gida-tzaileak zehaztea: txikiagotzea, gizakiaren eta planetako bizitzaren iraunkortasuna.
- Gizarte-harremanak aldatzea, eta maiz emakumeek egiten dituzten balioak eta

jarduteak berreskuratzea –tradizioz gizarteak rol hori ezarri dielako eginak–.

- Gizonen eta emakumeen arteko eta, orobat, gizarteko hainbat eragileren baterako erantzukizuna lortzea, etorkizuneko belaunaldien ongizateari begira.
- Berdintasunean eta iraunkortasunean oinarritutako irizpideei jarraiki, gizarte- eta ekonomia-sistemak naturak dituen ahalmenen arabera egokitzea (askitasuna, soiltasuna, dekonstrukzioa, txikiagotzea, hurbiltasuna eta burujabetza bultzatuz), Lurrean bizitzeko beste modu bat azaltze aldera. Gauza gutxiagorekin bizitzen ikastea.
- Emakumeen eta herrialde indigenen jankintzak eta lanak aintzat hartzea, eta balioestea.
- Lana eta ekoizpena berriz kontzeptualizatzea, eta denbora eta erantzukizunak be-

* <http://www.ecologistasenaccion.org/spip.php?article16371>
www.feministas.org/IMG/pdf/crisis_ecologica-2.pdf
<http://www.fuhem.es/cip-ecosocial/boletin-ecos/numero.aspx?n=10>

rriz banatzea, naturaren funtzionamenduari jarraiki.

- Zaintzeko lanak berriz banatzea: bidezkoa da ikusgarritasuna, onespina eta baterako erantzukizuna bultzatzea.
- Enplegu betea indartu ordez, lan guztiak berriz banatzea (hala gaur egun ordainduta daudenak, nola ordainduta ez daudenak).
- Esperientzia eta proposamen zehatzak sustatzea, hala nola, hauek: denbora-bankuak, kosturik gabeko saltokiak, auto-kontsumo ekologikorako taldeak, ikas-kuntzarako erkidegoak, hazkuntzarako taldeak.

Argibide gehiagorako:
www.ecologistasenaccion.org

Argitalpen honetan aurkeztutako aldarrikapenak, hurrengo erakunde, talde eta instituzioek, elkarlanean eta adostasunean eragindako prozesu baten emaitza dira:

Abogadas para la Igualdad
Acción Verapaz Euskadi
ADSIS
AECID
ALBOAN
Aralar
Asociación de mujeres Inola Urduliz
Asociación Vasca promover Europ@
Ayuda en Acción
Ayuntamiento de Miranda de Ebro
Bagabiltza
Basauriko Jabekuntza Eskola
Bateginez ONGD
BATUZ
Bilboko Udala. Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarren Saila
BIRBANA
Ca la Dona
CEAR-Euskadi
CEMS
Centre de Documentació Cooperació al Desenvolupament
Centro de Acción Legal por los Derechos Humanos. Guatemala
Centro Derechos Mujeres. Honduras
CEP-Alforja. Costa Rica
CLADEM. Colombia
Colectivo Invaxinate
Comisión Mujer por la Igualdad FEKOOR
Compromiso por las mujeres-Perú
Comunidad Mujeres Creando comunidad. Bolivia
Cooperació
Coordinadora Galega de ONGD
Coordinadora ONGD Andalucía
COTEDE ONGD
Cruz Roja
CSCA
Diputación de Málaga
Donostiako Udala. Berdintasun Saila
EGE
ELA sindikatua
Elkartea
Emakunde
Emaús Fundación Social
Enclave de Ciudadanas por Getxo
Entrepobles
Escribe-Lee
Euskadi Cuba
Eusko Jaurlaritza. Lankidetzeta Zuzendaritza
FEKOOR-Comisión Mujer por la Igualdad
Felix Baltistan Fundazioa
FISC
Foro de hombres por la igualdad del Estado
Fundación Centro de Promoción de la Mujer
Fundación Indera
Fundación Intermon Oxfam

Fundación Más Vida
Fundación Vicente Ferrer
Gipuzkoako Foru Aldundia
Grupo de Apoyo a la UNMS (Unión Nacional
de Mujeres Saharaís)
Haurralde
Instituto Universitario Estudios de la Mujer
INSTRAW
InteRed
InteRed Catalunya
IPES Internacional
KAQLA Guatemala
KCD-Kultura, Comunicación y Desarrollo
Las Dignas. El Salvador
Las Mélicas. El Salvador
Le Monde selon les femmes. Bélgica
Médicos del Mundo
Movimiento de Derechos Humanos Argentina
Movimiento de Mujeres Trabajadoras y
Desempleadas María Elena Cuadra. Nicaragua
Mugarik Gabe
Mujeres construyendo un mundo igualitario
Mujeres de aquí y de allá
Mujeres del Mundo
Mujeres Jóvenes de Asturias
Mulheres nacionalistas galegas
Mundubat
MZC, Mujeres en Zona de Conflicto
Oficina de Acción Solidaria y Cooperación
de la UAM
Oihulari Klown
Oreka Sarea S.L.
Paz y Desarrollo

Posada de los abrazos
Proyecto Transgénero. Ecuador
Red Latinoamericana de Católicas por el Derecho
a Decidir
REMTE. Ecuador
SETEM HEGO HAIZEA
Solidaridad Internacional
Solidaridad Internacional Galicia
Sortzen Consultoria S.L.
Unión Nacional de Mujeres Guatemaltecas.
Guatemala
Universidad de Barcelona
UPV/EHU
Urtxintxa eskola
WIDE

